



"'Linbo' dibertitzeko espazio bat da"

Aitziber Grados altsasuarrak EITBko 'late night' saioa aurkezten du / 2-4



Uholdeak Iturmendiko 20 bat etxebizitzari eragin zion, eta laguntza uholdea eragin zuen / 11

Aralarko santutegiko hondatutako atea Albaolan dago. Idiz tiratutako gurdian bueltatuko da / 7

CBASK-ek emakumeen lehen senior mailako Lauko Finala jokatu du lehenengoz / 17

SINADURAK

	JOSUNE AZPIROZ IMAZ / 5		SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK / 5
	XABIER LOPEZ SAEZ DE ASTEASU / 10		ANNE AZKONA UNANUA / 22

2025eko Sakanako Aizkora Eskolak ikasturtea despiditu du. Hamasei gazte trebatu dira / 18-19

Lakuntzako Pertza ospakizunean oinarritu dute herriko hizkeran egindako antzezlanak / 23

2025KO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugun

EMAN IZENA!




www.euskaraldia.eus



Aitziber Grados altsasuarra 'Linbo' saioko platoan. HIRU DAMATXO

"Falta zen Euskal Herrian horrelako formatu bat"

AITZIBER GRADOS MUÑOA KAZETARIA

EITBk emititzen duen eta Hiru Damatxo ekoiztetxeak sortzen duen 'Linbo' 'late night show' formatuko telebista saioaren aurkezlea da altsasuarra

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Aitziber Grados Muñoa kazetari eta umoregile altsasuarra *Linbo* telebista saioko aurkezlea da. EITBk apirilaren 24an mustu zuen late night show formatuko saioa, eta ostegun gauetan emititzen du. Umorezko saio "freskoa" da. *Linbo*-ren aurretik Gradosak *Argizaiola* Euskal Herriko misterioen eta *true crime* inguruko saioa grabatu zuen Mikel Pagadizabalekin, EITBren Primeran plataforman ikus daitekeena. Telebista eta streaming plataformako saioak ez ezik, altsasuarrek Malen Altuna lagunarekin *Benetan zabiz* podcasta egiten jarraitzen du, *Gaztea Irratian* eta *Guau* plataforman entzun daitekeena.

Erronkaz erronka?

Bai, bai. Erronka handia da. Ez dut sekula horrelako saiork egin. Ikusi, bai. Baina saio batek bestera, podcasta dela, Primeran-erako formatu bat dela eta telebistarako formatu bat dela, niretako denak berriak dira. Probatzen ditudan heinean erronkak dira; erronka politak.

Formatu hain desberdinak dira?

Esango nuke baietz. Azkenean, podcasta da estudio txiki batean non hiru pertsona gauden, zorionez, entzule asko ditugun, baina ez ditugun ikusten. Hortaz, lagun arteko hizketaldi bat da, eta gero gerokoak. *Argizaiola*-n askoz ekipo handiagoa zegoen, beste aurkezle nagusi batekin egiten nuen, nahiz eta gazteendako ere baden, beste mota batekoa da, beste plano batean dago, eta gaiak zeharo desberdinak dira. *Linbo*-ren kasuan ere *late night* formatu bat da, publikoaren aurrean grabatzen da... guztiz desberdina.

Nola heldu zitzaizun 'Linbo' aurkezteko aukera?

Hiru Damatxo ekoiztetxea saio berri bat egiten zebilen, eta aurkezle baten bila ari ziren. Bilatzen zituzten ezaugarrien artean freskotasuna, naturaltasuna, umorea, lotsagabetasuna eta abar zeuden. Nire profi-

"FRESKOTASUNA, NATURALITASUNA, UMOREA ETA LOTSAGABETASUNA BILATZEN ZUTEN"

"LANTALDE OSO BATEN PRODUKTU BAT DA; FLIPATZEN DUT UMOREAZ DAKITENAREKIN"

"FORMATUAK AKATSERAKO TOKIA UZTEN ZUEN; GAIZKI ATERATZEN BADA, BARRE EGINGO DUGU"

TALLERES GOÑI TAILERRAK

- Kristal aldaketak
- Lanta berritzeak
- Adeitasun autoa doan
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



'Linbo'-ko kolaboratzaileak, Danel Galdaera, Maria Corovi, Ander Maldabi eta Maialen Sorzabalbere, eta Aitziber Grados aurkezlea. HIRU DAMATXO

lak horretarako ematen zuela iruditu zitzaien, eta hautapropa bat egin ostean hartu ninduten.

Baietz ematea kostatu zitzaizun?

Ez. Nik uste proposatu baino lehen ere baiezkoa zegoela. Zuzendariari, Lander Arretxeari esan nion lehenengo gauza izan zen: "Ostras, ze mobida!".

Zer da 'Linbo'?

Linbo umorezko saio bat da, gonbidatuak izango ditu, Euskal Herriko aurpegi famatuak (besteak beste, Aitziber Garmendia eta Idoia Azurmendi, Nerea Ibarzabal eta La Txama, eta Jone Laspiur eta Iñi Vicens izan dira), eta kolaboratzaileak (Maria Corovi, Ander Maldabi, Maialen Sorzabalbere eta Danel Galdaera). Gehienak ez dira umoregileak, baina guztiek izango dute umorearen bidetik bere tartea. *Linbo* da jendeak orain arte, Euskal Herrian behintzat, ikusi ez duen zerbait. Umore asko izango du, eta sekulako talentua ikusiko da euskal umoregile eta aurpegi ezagunen artean. Edukia sortzerako orduan sekulako kalitatea dauka, sekulako ideiak dituzte. Gidoilarien bileretan benetan flipatzen dut. Esaten diet oso azkarrak direla. Ni nago hor esaten: ongi. Hori da ikusiko duguna *Linbo*-n. Dibertitzeko espazio bat; hori batez ere. Ikus-tera etorri direnek *feed back*



Aitziber Garmendia antzezlea 'Linbo'-ko gonbidatua izan zen, Aitziber Grados aurkezlearekin. HIRU DAMATXO

oso ona eman digute eta oso ondo pasa dutela esan digute. Telebistan ikusi dutenek ere orain arte ongi pasa dutela esan digute.

Gidoiaren sorreran parte hartzen duzu?

Ez ditut nik ideiak sortzen. Ideiekin oinarri bat sortzen dute, eta nik horren gainean hitza eta iritzia daukat, hori kontuan hartzen dute. Ni ez naiz ideien sortzailea, baina bai aportatzen ditut gauza asko. Lantalde oso baten osteko produktu bat da.

"ESAN DIDATENAREN ARABERA FRESKOTASUNA ETA NATURALITASUNA EMATEN DIOT"

"GAZTEENDAKO ETA EUSKAL GAZTEEN KODIGOAK MANEIAITZEN DITUEN ZERBAIT BEHAR ZEN"

Dena idatzita dago edo inprobisaziorako tokia dago?

Inprobisaziorako tokia dago. Bai kolaboratzaileek bai gonbidatuek bai nik. *Linbo*-an edozerk balio du, eta edozer esan daiteke. *Linbo*-n sartzen denak hori badaki. Gidoia egon bada, azken batean dinamikotasunari begira izan behar dugulako eta badiarelako kontuan izan beharreko gauza asko; baina nik baimena daukat edozer esateko. Gainera, belarrian zuzendaria daukat eta berak ere txisteak eta abar esaten

dizkit. Formatuak berak akatserako lekua uzten zidan; akatserako tokia badago. Orduan, zerbait gaizki ateratzen bada, barre egingo dugu.

Nola da horrelako formatu bat aurkeztea?

Erokeri bat da. Egitura bat jarraitu behar dut, gidoia eta gai batzuk; aldi berean gonbidatuak esaten duena entzun behar dut eta horri erantzun bat eman behar diot. Belarrian aldi berean eskizofrenia bat daukat, Lander Arretxea, eta orduan eromena da. Baina hala ere uste dut nahiko ondo kudeatzen dudala. Agian momenturen batean kamerak hartzen nau eta aurpegia linboan egongo balitz bezala da, baina ondo. Ataletik atalera hobetzen goazela iruditzen zait, bai ni bai denak.

Nolakoa izan zen lehenengo atala?

Lehenengo grabazioa ondo ateratu zen. Flipatu nuen. Espero nuen ondo aterako zela, baina lasaitasun handiarekin egin genuen eta bukatu nuenean esan nuen: "Ah! Hau da! Bada, listo!".

Euskaraz horrelako formaturik ez da inoiz egin. Aitzindaria sentitzen zara?

Aitzindari ez nuke esango. Ni ez naiz berezia sentitzen. Ez dakit lehenengoa denik ere esatera ausartuko naizen; ez dakit ETBn aurretik horrelako zerbait egon den. Bai egon dira *Barre libre*a bezalako saioak, baina ez da berdina. Ez dakit zer egon den atzean edo baten bat egon den gerturatu zaiona.

Berritzailea bada.

Berritzailea bai. Gaur egun asko kontsumitzen den formatua da, bai gaztelaniaz bai ingelesez, eta falta zen Euskal Herrian horrelako saioaren bat. Batez ere euskal gazteen kodigoak eta abar maneiatzen dituen. Umorea, aurpegi ezagunak testuinguru informal batean eta beste lotsagabetasun batekin ikusi. Batzuetan betiko estigma izan da: euskaldunak oso itxiak eta formalak dira. Bada, spoiler, ez; hori gezurra da. Denetarik dago. **Gonbidatuak ere denetariakoak dira?** Bai. Gero ere aurkezle moduan nire aurreiritziak izan ditut. Agian pentsatu izan dut gonbidaturren bat serioagoa dela, eta gero dator eta oso dibertigarria izan da. Testuinguru jakin batean ezagutzen dugu pertsona hori, baina gero beste modu batekoa ere bada.

hurrengo orrian jarraituko du »

« aurreko orrian hasi da Publikoarekin grabatzen duzue. Nola da publikoa bertan izatea?

Niretako, pertsonalki, hori zailena dela esango nuke. Lantaldearendako ere publikoa bilatu behar izatea; orain emititzen ari dela ez dakit errazagoa izango den. Sakandarrak animatzen ditut; hurrengo grabazioa maiztaren 22an izango da, Donostiako Gazteszenan, Egia auzoan. Instagrameko @Linbo kontuan esteka jarriko dute, eta garagar-doak doan banatzen dituzte. Esan bezala, erronka nagusia niretako hori izan zen. Lehenengoz grabatu genuen egun hartan ikusi nuen saioaren norabidea asko baldintzatzen zuela aurkeztearen eta kolaboratzailearen muga, nolabait esateko; publikoa oso irekia bazegoen gu ere bai, baita kontrari ere, publikoa serioago bazegoen, gu ere bai. Baina gu hor mantendu behar gara, barre egiten eta barreginarazten.

Erreferentziarik edo inspiraziorik ba al duzu?

Nik ez. Lantaldeak nik uste dut baietz. Badaude umorearen frikiak. Frikizentzu onean. Umore asko kontsumitzen dute eta erreferentzia asko dituzte. Nik flipatzen dut; haiekin alderatuta ez dakit ezer, bost urteko haur bat jolasten naiz. Nire kasuan ez dut erreferentziarik ez ditudalako horrelakoak kontsumitzen. Noizbait *La Revuelta* edo *La Resistencia* ikusi izan dut, baina gaur egun ez dut ikusten.

Zer ematen diozu saioari?

Esan didatenaren arabera freskotasuna. Askotan errepikatu didate. Naturaltasuna ere bai, eta gaztetasuna. Gaztea naiz, beraz... Naturaltasunarena asko errepikatu didate, baina niretako ez da hori ez den beste modu bat izateko; nik ez dut beste modu bat baloratzen. Gonbidatuak lagunak bezala tratatzen ditut, denak berdinak gara, ez dago maila sozialik eta goazen jolastera. Hori da bibra. Ez naiz zalea edo fana. Egiten duten lana baloratzen dut, baina niretzako ni bezalakoak dira eta ez diet sinadura bat eskatuko.

'Late night show' motatako saioetan gizonetakoak dira nagusi. 'Linbo'-ren kasuan emakumezko bat zara. Horretan ere berritzailea.

Ni ez naiz sentitzen *woman power*-en adierazle. Agian esaten dudana indibidualista da, baina beti egin izan dut nahi



Aitziber Grados eskuinean, 'Benetan zabiz' podcastean, Flako Fonki gonbidatuarekin eta Malen Altuna lankidearekin. BENETAN ZABIZ



Mikel Pagadirekin Primeranerako egindako 'Argizaiola' saioa. PRIMERAN

'''ARGIZAIOLA' FORMATU ZEHARO DESBERDINA ZEN; EUSKAL HERRIKO MISTERIOAK''

'''URTETIK URTERA IKUSI DA GURE PROIEKTUA GARATZEN JOAN DELA, ETA GU HEZTEN''

izan dudana. Nahi izan dudala lagun batekin saio bat egin, hori egiteko bozgorailua izan dut. Egia da pribilegio bat izan dela. Emakumea bai, baina lehen lerroan dagoen emakume bat izateko patroiz batzuk bete behar dituzu, eta ni kontzientea naiz pribilegio asko betetzen ditudala. Edozein kasutan ere, uste dut ETBk apustu ona eta polita egin duela zentzu honetan, ni oso pozik nago. Kasu honetan saioa ez nuke esango maskulinizatua dagoenik, gizona bezala daude eta emaku-

mezoak daude, eta super talentudunak denak.

Arrakastatsua izaten ari da. Beharrezkoa al zen?

Bai. Batez ere bagaude garai batean non euskal umoregileekin bakarriketa saio asko ikusi ditugun, eta gutxinaka jende gehiago animatzen ari den. Duela bi urte bakarriketalariz batzuk bazeuden, eta gutxinaka jende berria animatzen ari da. Horrekin ez dakit euskal umorearen loraldia izan daitekeen, baina ikusten ari da edo ETBren partetik ere ikusten ari gara euskaldunei

euskal umorea gustatzen zaiela eta espazio bat jarri behar dutela. Batez ere gazteendako; gazteendako oso gauza gutxi daude euskaraz ETBn.

Denboraldiak zenbat saio izango ditu?

Hamar atal. Momentuz zortzi grabatu ditugu, eta hurrengo bien grabaketa maiztaren 22an izango da. Bi atal grabatzen ditugu batera.

FORMATUAK

Aurretik 'Argizaiola' egin zenuen. Nola sortu zen proiektu hori?

Nik ere ez dakit. Deitzen naute eta esaten dut: "Ados". Kasu honetan formatu zeharo desberdina zen, Primeran plataformarako saio bat da. Sei atal grabatu genituen eta Euskal Herriko misterioen inguruko saio bat da. Mikel Pagadizabalek eta biok aurkezten dugu. Kasu honetan ere Pagadik deitu zidan harreman txiki bat geneukalako. Esan zidan: "Sozia, animatuko zara hau grabatzen?". Eta nola esango diot ezetz?

Nola izan zen prozesua eta grabazioa?

Egia da dokumentazio prozesuan nik ez nuela parte hartu. Niri informazioa pasatzen zidaten, intereseko informazioa; *true crime*-aren oso zalea naiz, baita misterioena ere. Ez dit beldurrik ematen, gozatu egiten dut. Kasu honetan hainbat gai planteatu zizkidaten, ataletan zehar banatuko zirenak, informatu nintzen, gidoia osatu genuen, eta aurrera. **'Benetan zabiz' podcastarekin ere jarraitzen duzue.**

Hirugarren urtea da, oker ez banago. Gogo handiarekin jarraitzen dugu. Beste proiektuak oso ondo daude, eta esan behar nuen ikusgarritasun gehiago dutela, baina *Benetan zabiz* podcasta geroz eta jende gehiagok ikusten eta entzuten du. Guk espero genuena baino askoz gehiago. Urtetik urtera ikusi da nola gure proiektua garatzen eta handitzen joan den, baliabideak lortzen eta gu ere hezten. Azken batean, gure bizitza kontatzen dugu; gure eguneroko bat bada. Kasu honetan ere modu freskoan edo naturaleran.

Etorkizunerako proiektu gehiago dituzu?

Espero baietz. Momentuz ez daukat ezer eskuartean. *Linbo*-k bigarren denboraldia izatea nahi dut, baina momentuz lehenengoa gozatuko dugu, eta etorkizunean pasatzen dena, ikusiko da.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Esku hartze soziala
amildegiaren ertzean?

Hori irakurtzen nuen egunkari batean: Sistemak langileak babesteko betebeharra du, baina erabat kolapsatuta eta zaharkituta dago, eta ezinezkoa du beharrei erantzun egokiak ematea.

Aldi berean, ematen diren zerbitzuak berrikusi eta erabiltzaileen profiletara egokitzea, lan espazioak, arreta ratioak eta baliabide eta zentro berriak sortzea, eta, garrantzitsuena, arreta ematen diegun erabiltzaileen une bakoitzeko profiletara eta haien beharretara egokitzea.

Eta hori da Sakanako aniztasun funtzional eta gaixotasun mentala duten pertsonekin lan egiten duen profesional bezala dudan iritzia eta borroka. Sakanan, arreta sozialerako baliabide eskasak daudela eta gorago aipatutakoa kontuan hartuta baliabideak sortzeko momentua dela.

Beharrezkoa da Sakanan gaixotasun mentala edo aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzendutako baliabideak sortzea, komunitatearen beharretara egokitutako baliabideak izanda.

BEHARREZKOA DA
SAKANAN GAIXOTASUN
MENTALA DUTEN
PERTSONEI
ZUZENDUTAKO
BALIABIDEAK SORTZEA

Horretan ari gara Biak Bat-en, Sakanan aniztasun funtzionala edota gaixotasun mentala duten pertsona helduei zuzendutako arretarako zentro polibalentea sortzen. Animaliak, natura eta komunitatea ardatz izanda eta erabiltzaileen parte hartzearekin. Pertsonen ahotsak entzun eta kontuan hartzen prozesu osoan.

Oraingoz, aurkitzen ari garen zailtasuna, plazak ez direla betetzen eta ez betetzean, Nafarroako Gobernutik ez dela beharrezkoa ondorioztatuko dute, eta programaren finantziazioa galduko dugu.

Nahi dugun Sakana inklusiboa lortzeko aukera baliotsu hau ezin dugu galdu. Lagundu zabalitzen!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Bizitzaren erronkei aurre egiteko hezi

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Askotan entzun ohi dugu drogen kontsumoaren ondoren sor daitezkeen arazoak ekiditeko ezinbestekoa dela gure seme-alabekin drogei eta haien arriskuei buruz etxean hitz egitea. Aldi berean, gurasoek diote drogen gaia, teknologia eta sexualitatearekin batera, ziur asko, gurasoei zailtasun gehien sortzen dizkien gaia dela, bai ezjakintasunagatik bai gure seme-alabekin gai horiek kudeatzeko zailtasunagatik.

Garrantzitsua da drogei buruz hitz egitea dramatizatu gabe. Alferrikako egoera dramatikorik sortu gabe hitz egitea, kutsu katastrofistatik ihesi eta, aldi berean, gaiari buruz hutsalkeriarik ez egitea. Kontuan izan behar da gure seme-alabek drogei buruz jasotzen dituzten lehen informazioak osatu gabeak eta nahasiak izan ohi direla. Hori dela eta, informazio serioa eta egiaztatua eman behar zaie seme-alabei. Baina prebentzioa egitea ez da soilik drogei buruz hitz egitea, bizitzarako heztea baizik. Drogen arriskuez hitz egin baino gehiago, drogek dakartzaten arriskuak prebenitzeko hezi behar ditugu.

Garrantzitsua da gure seme-alabekin elkarriketa sustatzea eta hau ez da hitz egitea soilik, egiten dutenari begiratzea baizik. Gure seme-alabek adierazten dutenari arreta jartzea eta adierazten dituzten ideiak, zalantzak eta euren kezkei balioa ematea. Honek ez du esan nahi esaten dutenarekin ados egon behar garela beti, beraiek iritzi propio bat izatea onartzen dugula baizik. Horrela, lagun diezaiekegu autonomoak izan daitezen, bizitzan sortzen zaizkien gatazkei aurre egiteko gai izan daitezen eta beraieiendako onuragarriak diren erabakiak har ditzaten.

Horretarako oso garrantzitsua eta beharrezkoa da seme alabei mugak jartzea. Mugak jartzeak segurtasuna, babesa eta konfiantza sentiarazten die seme-alabei. Gainera, beren muga propioak jartzen eta ezetz esaten irakasten die.

Guraso garen aldetik, gure funtzioa da haiekin egotea, haiengan konfiantza izatea, huts egin dezaten ahalbidetzea eta maitatuak eta seguruak sentituko diren ingurune bat ematea, segurtasun eta maitasun horretatik eraikiko dutelako beren identitatea.

Eredu horretan jartzen dute arreta; errespetatzen baditugu, gainerakoak errespetatuko dituzte; ondo tratatzen baditugu, gainerakoak ondo tratatuko dituzte. Zaintzen baditugu, beren burua zaintzen ikasiko dute.

Eta, gogoratu: gehiago hezten dugu egiten dugunarekin esaten dugunarekin baino.

HIZKETAN

Entzun GUAIXE IRRATIko
elkarriketa guztiak

guaixe.eus/irratia/hizketan



HIZKETAN



komunikazio taldea

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Altzelai Iriarte

Kolaboratzailea:
Miren Mintegi Claver

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus


Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Begirada ongi etorrian jarri duen zikloa

Hainbat erakunde eta eragilek bat egin dute pertsona migratzaile eta errefuxiatuei ongi etorria adieraztearen beharra nabarmentzen duen zikloa prestatzen. Altsasuk hiru jarduera hartuko ditu. Olatzagutiko eskolan elkartasun azoka prestatzen hasi dira

ALTSASU

Duela urte batzuk egin eta emaitza ona izan ondoren, Altsasuk bigarren ez elkartasun zikloa hartuko du eta aurtengoak *ongi etorri Sakanara pertsona migratu eta errefuxiatuak* leloa hartu du. Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko gizarte hezitzaile Begoña Zestau Baraibarrek azaldu duenez, "Sakanara etortzen diren pertsona migratzaile eta errefuxiatuei ongi etorria ematen jarraitu nahi dugu. Sakanara etortzean pertsona horiei ongi etorria emanez argitasun pixka bat jasotzea nahi genuke".

Munduko arrozen 9. edizioa izanen da zikloa zabalduko duena. Hamaika su piztuko dira eta haietan jatekoak prestatuko dituzte honakoek: Sakana Harrera Harana, Altsasu institutua, Zelandi eskola eta Sahara, Maroko, Venezuela, Peru, Nikaragua, Siria, Errumania eta Kolonbian jaiotako altsasuarrak. Jakiak estalpean prestatuko dituzte, domekan 10:00etatik 14:00etara. Jakiak nola prestatzen dituzten galdetzeko aukera izanen da sukaldariak lanean ari diren bitartean. Handik pasatzen denak gaitariak, dantzari taldea eta txapak egiteko tailerra izanen ditu. Gainera, 13:00etan, dastatzeko aukera izanen da. Ohi be-



Antolatzaileak eta parte hartzaileak zikloaren aurkezpenean.

zala, euro baten truke ontzia, sardexka eta eskuzapia eskura daiteke. Eguraldiak lagunduko ez balu, ekimena frontoian egingen litzateke. Ekimenerako egindako mandarretan Sakanan entzun daitezkeen hainbat hizkuntzatan ongi etorri idatzita dago.

Sukaldarietako bat da Meyem Kridin. Marokon jaioa, Lakuntzan 8 urtez bizi ondoren, duela 5 urte pasatik altsasuarra da. Munduko arrozetan hiruzpalautan parte hartu du, behin Lakuntzan eta gainerakoak Altsasu. Orain arteko esperientzia

"gustuko" izan duela adierazi du. "Nik kuskusa prestatzen dut eta jendeak nola egiten dugun galdetzen dit. Gainera, jendeari probatzea asko gustatzen zaio". Domekan kuskusa oilasko, txitxirio eta mahaspasekin prestatuko du, "gozoa eta gatzia elkarrekin", zehaztu du. Azaldu duenez, jai egunetako jakia da kuskusa sorterrian, "ostiralero egiten dugu, eta hemen ohiturarekin jarraitzen dugu". Jatekoaren bidez herritarrek elkar ezagutzeko ekimena "garrantzitsua" dela uste du.

"Haien ametsak guztion ametsen parekoak dira"

IDOIA ONECA MUNARRIZ CEAR NAFARROAKO KOORDINATZAILEA

Iortia kultur guneak CEArren Hainbat begirada, hainbat pertsona erakusketa hartuko du maiatzaren 16tik garagarriaren 15era. Hilaren 20an Aitziber Urtaşunek eta protagonistetako batek bisita gidatua egingen dute.

Zer da CEAR?

Comisión Española de Ayuda al Refugiado elkarteak 45 urteko ibilbidea du. Giza eskubideen alde borroka egiten dugu, nagusiki asilo eskubidearen alde. Hona iristen diren pertsonekin lan egiten dugu, ministerioaren harrera programa kudeatuz. Harrera, etxebizitza eta



laguntza batzuk ematen dizkiegu pertsonak bizi autonomoa izan dezaketene edo programatik atera behar dutene arte. Gurutze Gorriak Altsasuko aterpean kudeatzen duen programaren parekoa da. Bestalde, eragiten lan handia egiten dugu. Politikan arau aldaketak lortzeko eta giza eskubideak beti errespetatu

daitezen. Eta gizartean ere eragiten dugu, gizartea eraldatzailea izan dadin eta harrera gizarte bat izan gaitezen.

Zer gehiago egiten duzue?

Esaterako, Aitziber Urtaşun arte hezitzailearekin urtero arte tailer bat antolatzen dugu, eta sortutakoa da erakusketetan jartzen duguna. Pertsona errefuxiatu edo migratzaile deitzen ditugun horien atzean pertsona bat, historia bat eta amets batzuk daudela erakusten saiatzen gara.

Hori nola islatzen da erakusketan?

Arte erakusketa da, arreta pizten du. Protagonistak programan dauden edo egon direnak dira. Pertsona bakoitzak bere ametsa azaltzen du bere erretratuan ikutuak eginez. Eta haiek ikustean zer esan nahi duen galde diezaiokezu zure buruari. Haien ametsak gu guztiok ditugun ametsen parekoak dira: bakean bizitzea, gizarte justu batean bizitzea eta duintasunez bizitzea.

Tokiko erakundeekin elkarlanak zer balio du?

Funtsezkoa da, gizarteak eta toki erakundeek eskuz esku lan egin behar dugu harrera gizartea izateko. Kulturartekotasun zerbitzua izatea oso positiboa da. Gizarte anitza garela landu behar dugu. Emateko eta eskaintzeko asko dugu. Elkarrekin bizi behar dugu, ez batera existitu. Horretarako, halako elkarlanak garrantzitsuak dira. Sentsibilizatu eta azaltzeko aukera izatea. Askotan gauzen berri ez dago eta, horregatik, gero eta gehiagotan entzuten ari garen diskriminazio eta gorroto diskurtsoak sortzen dira.

EHEk euskarazko kultur eskaintza eskatu dio udalari

Eragile euskaltzalekoek adierazi dutenez, euskarazko "eskaintza zabal, iraunkor eta kalitatezkoa" nahi dute

ALTSASU

Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eragile euskaltzaleak Altsasuko Udalaren kultur eskaintzaren joan zen urteko datuak aztertu ditu. Jakinarazi duenez, helduen programazioaren %15,63 izan

zen euskaraz, haur eta nerabee-na, berriz, %66,66. 2023ko datuak %13,63 eta %56,25 izan ziren. EHEko kideek esan dutenez, "datuek hobekuntza txiki bat erakusten duten arren, ez dira nahikoak. Hobekuntza horiek

gure eskaeretatik urrun daude. Are gehiago, ez dituzte betetzen hizkuntza gutxitu batek bizirauteko behar dituen baldintzak". Ziurtatu dutenez, "euskaraz bizitzeko eskubidea ez da borondate kontu hutsa, ez da anekdota: egunerokoan eta kultur jardueretan ere euskaraz bizitzeko baldintza egokiak behar dira".

Gogoratu dutenez, "Altsasuko euskaldunok Udalari BOST! lelopean bilkura egin genuen 2021ean, aurretik alkatearekin bilera izan genuen. Lastailean

udalak adierazi zigun gaia 2022an landuko zutela. Altsasun kultura euskaraz ainguratu gura dinamika 2022an sortu genuen. Apirilean lehen bilera egin eta abenduan sinadura bilketa bati ekin genion". 500 sinadura lortu zituzten eta haiek 2023ko garagarriean udaletxean aurkeztu zituzten. Sinadurek hiru eskaera babesten zituzten: haur eta gaztetxoendako kultur ekitaldien %100 euskaraz izatea, helduendako programazioaren %25 guxtienez euskaraz izatea eta eus-

karazko kultur eskaintza handitzeko urteko plangintza bat osatzea. EHEkoen iritziz, eskaerak "zilegiak dira eta bidezkoak dira. Herritarrok prest gaude; orain, Udalaren txanda da".

Aldarrikapena kalera ateratzeko, EHEkoek kultura euskaraz orain! Altsasuko euskaldunok udalari bost! leloa duen elkarretaratzea deitu dute. Maiatzaren 22an, ostegunarekin, 19:00etan izanen da, udaletxe parean. Ondoren, Irati eta Ekhiñe musikariek emanaldia eskainiko dute.

Santutegiko ate berria gurdian ekarriko dute

Santutegia eta Albaola elkarlanean ari dira 'Mundu berri baterako ateak' proiektuan. Atea egiteko prozesua eta hura idiek tiratutako gurdian ekartzea dokumentalean jasoko dute. Atea garagartzaroaren 15ean iritsiko da santutegira

SAKANA
Ezezagunek Aralarko santutegi-ko ateari su eman eta pintaketak egin zituzten lastailaren 26an. Gertakari horren ondoren horren berri izan zuen Xabier Agotek, Albaola Itsas Kultur Faktoriako arduradunak. Agotek, familiaren bidez, haurra denetik izan du santutegiarekin harremana. Gainera, Albaola itsas faktorian Sakanako haritzekin, eta garai bateko teknikak baliatuz, San Joan baleontziaren errepika erakitzen ari dira. Horregatik guztiagatik, santutegiko arduradunekin harremanetan jarri eta ate berria Albaolan, artisau moduan, eraikiko zutela jakinarazi zien.

Santutegiaren eta Albaolaren artean *Mundu berri baterako ateak* proiektua ondu dute. Ate berria egiteko pausoa Teknikerrek emanen du. Erretako atearen zein ate berriaren eskaneatze tridimentsionala egingo du, horrela jatorrizkoaren berreraikitze fidela bermatzeko. Aldi berean, ondare hori babestuko da, etorkizuneko belaunaldien dako artxibo digitala izanen baita. Bestetik, Virtualan enpresak digitalizazioaren emaitzak ikusteko esperientzia erakargarri bihurtzeaz arduratuko da, horretarako animazioak, irudikapen interaktiboak eta beste-lakoak garatuko ditu. "Gure helburua lana publiko zabalari hurbiltzea da, teknologia eta ondarea modu ulergarrian eta zirrargarrian aurkezten direla ziurtatuz, eta digitalizazio teknikoaren eta azken ikus-entzunezkoen ekoizpenaren arteko zubi gisa baliatuz", azaldu du Alfonso Garziandia Goñi santutegiko kaperauak. Bestalde, Albaolako ate (egurra eta burdineria) desmuntatu zuten astelehenean eta behar diren elementuak eskuz berreraikiko dituzte.

Behin ate berreraiki denean, idiz tiratutako gurdi batean Pasaiatik Aralarko santutegira



Albaolara bikea eraman zuten gurdia Aralar parean 2016ko irailaren 11n. ARTXIBOA

ATEA KENDU, EGIN ETA GARRAIATZEKO PROZESUA DOKUMENTAL BATEAN JASOKO DUTE

eramanen dute ate. Hainbat etapa egingen dituzte herriz herriko ibilbide horretan. "Aukera izugarria da, ez bakarrik proiektua ezagutarazteko, baita pedagogia egiteko ere, bereziki belaunaldi berriei, tradizioak eta norberaren nortasuna zaintzearen garrantziari buruz", esan du Garziandiak. Gaineratu duenez, "geldialdi bakoitza jendearekin topaketa bat izango da, erakusketak ibiltari gisa, eta jendearekin proiektuarekin aktiboki inplikatzeko aukera emango die". Gipuzkoa zeharkatu ondoren Lizarrustitik barna iritsiko da ate Sakanara. Ataun eta Etxarri Aranatz arteko etapa garagartzaroaren 13an izanen da. Hurrengo egunean Etxarri Aranatz eta Uhart Arakil artekoa. Uhart Arakilgo pistatik santutegiraino garagartzaroaren 15ean iritsiko dira.

Kaperauak azaldu duenez, proiektu guztia dokumental batean jasoko dute, Clau Creative Services ekoizpen etxek egingen du. Bidea eta atearen muntatzeaz aparte, egindakoaren garrantziari testuingurua emanen dieten hainbat elkarrizketa izanen dira. Baina bitartean, proiektuari sare sozialen bidez zabalkundea eta ikusgarritasuna emanen diote.

Aingerua

Erretako atearen hondarrekin Aralarko San Migel irudiaren irudikapen bat egingen da eta San Joan itsasontzian eramanen dute. "San Migel gaizkiaren kontrako babesaren sinboloa da zentzu guztietan", argitu du kaperauak. Esan duenez, "kristau tradizioan Ate Santua elkarrizketarako eta Jainkoaren miseriakordiarako ikurra da. Jubileu urtea ere bada. Proiektuaren barruan, atearen sinboloa aukera berrietara irekitzeari, aldaketa positiboari eta etorkizun bidezkoago eta harmoniatsuago baten eraikuntzari lotuta dago". Erretako ate eta eraikitzen ari diren itsasontzia egurrezkoak dira. "Pasaiatik Mundu Berrira abiatuko da itsa-

sontzia, laidoa zena mundu berri baterako ate bilakatuz".

Helburua

Garziandiak azaldu duenez, "proiektuaren bidez egindako laidoa konponduko da. Txarra dena on bihurtuko da. Elkarta-sunerako, lankidetzarako eta ekintza bateraturako deia da". Aldi berean, "auzolanaren espirituaren bitartez, ilusioz eta arduraz elkarrekin lan egiten duten pertsonen batasuna da, Nafarroa eta Gipuzkoako kultura eta historia ondarearen ikur bat babesten eta biziberritzen laguntzeko", esan du Garziandiak.

Kaperauak azaldu duenez, proiektuaren helburua da Aralarko San Migel santutegiak irudikatzen duen espiritualtasun, kultura, historia, ate eta natura

ondarea babestea. "Santutegiak mendeetako historia du atzean, eta ez da debozio eta erromesaldi lekua bakarrik, gizakiaren eta bere ingurunearen, espiritualtasunaren eta kulturaren, iraganaren eta etorkizunaren arteko loturaren sinboloa ere bada". Garziandiaren esanetan, "bere espiritualtasun ondarea defendatzeak bere esanahi erlijiosoaren esentzia bizirik mantentzea dakar, bertan inspirazioa eta kontsolamendua bilatzen dutenendako fede, bilketa eta topaketarako gune izaten jarraituko duela ziurtatuz. Arteari, kulturari eta historiari dagokienez, santutegiaren historiari forma eman dioten ezagutzak, kontakizunak eta tradizioak transmititzea da, santutegiaren azterketa, dibulgazioa eta babesa sustatuz, ez daitezen desagertu".



MAIATZAK 12-16

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Maiatzak 12 Juanjo Erdozia Sakanako Aizkora eskolaz eta Koldo Flores Ahobizia
Maiatzak 6 Xerka proiektua
Maiatzak 7 Bertso saioa (Bertsoa.eus) eta Etxarriko mintzakideak Euskaraldian
Maiatzak 8 Aitziber Grados Linboz
Maiatzak 9 Uhart Arakil, Unanu eta Lakuntzakoak Euskaraldian eta Agenda berezia



$$\begin{array}{r} 60 \\ - 80\% \\ \hline 12 \end{array}$$



Guaixe Fundazioaren bazkidetza: euro bat hilean!

60 euroko urteko kuotatik 48 euro (%80a)
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean,
12 euro ordainduko dituzu urtean.

2024ko ziurtagiria eskatzeko:

admin@guaixe.eus edo 948 564 275,
Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)

Udaberriko Euskaraldia bertan da

Izena-ematea oraindik irekita dago, bai herrietan bai 'euskaraldia.eus' webgunean. Ariketa eroso egiteko ezinbesteko identifikagarriak, txapak, banatzen hasi dira ere. Sakanan, momentuz, aurreko edizioan baino parte hartzaile gutxiago daude

SAKANA
Sei egun besterik ez dira gelditzen Euskaraldia hasteko, maiatzaren 15etik 25era izango da. Ariketa egiteko ezinbestekoak dira ibarreko herrietako Euskaraldia batzordeak. Haiek, dagoeneko, dena ia prest dute ariketari ekiteko. Sakanan barna buru-belarri dabilta izen-emateak biltzen, entitateetara bisitak egiten, Euskaraldiak iraungo duen bitartean izango diren ekitaldiak antolatzen... makina bat sakandar, ilusioz lanean, eta, jada, "urduritasun" ikutuarekin.

Euskararen erabilera handitzeko ariketa masiboa da Euskaraldia. Sakanako koordinatzaile Amaia Iparragirre Mendiak Euskaraldiaren garrantzia nabarmendu du: "oraingoz daukagun tresna indartsuena da". Gaineratu duenez, "orain da euskararen erabilera jautzia eman ahal izateko batzeko garaia; denok batera eraginda entzungo baita euskara gehiago gure kaleetan", esan du Iparragirrek. "Bi urtez behin egiten dugun ariketa masiboa probestu behar dugu abiada hartu eta urte guztian euskara gehiago erabili eta entzuteko", gaineratu du.

Izena ematearen garrantzia
Izena eman ez duten sakandarrak ahobizi edo belarriprest izango diren esateko aukera dute oraindik, ariketa hasi arte izen-ematea irekita egongo baita. Jakina denez, ariketan parte hartzeko bakoitzak bere rolaren berri ematea beharrezkoa da. Datu gutxi batzuk beteta ematen dute izena *euskaraldia.eus* webgunean edo herrietan jarritako mahaletan. "Rola aukeratzean, euskaraz hitz egiteko dugun gaitasuna baino euskaraz zenbat, zenbatekin eta zenbatetan egingo dugun erabakitzea da garrantzitsua",



Unenuarrak afaltzera elkartu ziren martxoaren 22an. UTZITAKOA

DAGOENKO 95 ENTITATEK ARIGUNE GISA IZENA EMAN DUTE, 2022AN 130 IZAN ZIREN

azpimarratu du Iparragirrek. Erabaki horrek ariketak irauten duen 11 egunetan norberak izango duen jarreraren eta portaera zehazten du, beraz. Eta 11 egunetan, parte-hartzaileek hartutako erabakiei esker, egunerokotasunean, euskararen presentzia handitzea lortzen du Euskaraldiak.

Iparragirrek esan duenez, "ariketarako ezinbesteko elementua da txapa. Identifikagarri horrek erakusten du parean dugunak euskara badakiela, eta mezu argia bidaltzen du: nirekin hitz egin euskaraz, lasai!" Beraz, "norberarendako baino aurrean dugunarendako da baliagarria txapa. Hizkuntza bat edo beste aukeratzean sortzen zaigun estresa murrizten du horrela, eta euskaraz askoz erosoago aritzeko aukera ematen digu", argitu du.

2022an baino gutxiago
Maiatzaren 6 datuak eskutan, duela hiru urteko Euskaraldian baino sakandar gutxiagok eman dute izena: 1.521, 621 edo %28,99 gutxiago. Bakarrik Arakil, Iturmendi eta Ziordian gaintitu dute 2022ko izen ematea. Rolei erreparatuta, izena emandako sakandarren %85,08 (1.294; 3 puntu gehiago eta 463 parte hartzaile gutxiago) ahobizi dira. Belarriprestak, berriz, %14,92 (227, 158 gutxiago) dira.

Generoari erreparatuta, duela hiru urtekoen antzekoak dira datuak: hiru parte hartzaileetatik bi emakumezkoak dira, bestea gizonezkoa. Adin taldeen datuetan ere ez dago aldaketarik. Momentuz, parte hartzaile gehienak, 551 (%33,60 eta 249 izen emate gutxiago) 30 eta 44 urte artean dituzte. Hurrengo adin multzoa 45 eta 59 urteen artekoa da: 444 (%29,19, 180 gutxiago). Hirugarren adin tartea 16 eta 29 urte artekoa da 284 izen ematekin (%18,67, 109 gutxiago). 60 eta 74 urte arteko 237 sakandarrak eman dute izena (%15,58, 75 gutxiago). Eta, azkenik, 75 urtetik gorako 42 sakandarrak daude (%2,76, eta 11 gutxiago).

FESTAK

ITURMENDI

SAN MIGELAK

Maiatzak 9 Ostirala

17:00 Frontenis partiduak, frontoian.
19:00 Palestinaren inguruko hitzaldia, udaletxean.
Tximona gaztetxeak antolatuta.
20:00 Euskaraldiaren guri kalejira.
21:00 Bokatada, gaztetxean.
Tximona gaztetxeak antolatuta.
22:00 Kontzertuak, gaztetxean: Mandroll, Kaos Rural, Mataperros eta Kata Punk.
Tximona gaztetxeak antolatuta.
03:00 Musikaldia, gaztetxean.
Tximona gaztetxeak antolatuta.

Maiatzak 10 Larunbata

11:00 Buruhandi tailerra.
13:00 Auzatea eta dantza

modernoak.
18:00 Makilen mundua ikuskizunaren emanaldia.
19:30 Zortzikoa.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00/00:00-02:00 Muxutruk taldearekin dantzaldia.

ARAKIL

SAN ISIDRO EGUNA

Maiatzak 15 Osteguna

12:00 Arakilgo hildakoen omenezko meza, Itxasperri ermitan.
Ondoren, otamena.

ARBIZU

SAN ISIDRO EGUNA

Maiatzak 15 Osteguna

19:00 Aatea, plazan.



ITURMENDI Larunbatean 19:30ean zortzikoa dantzatuko dute plazan. ARTXIBOA

PORTUKO

Probatu gure pastak!

Altasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranz: 948 460 988



KOLABORAZIOA

XABIER LOPEZ SAEZ DE ASTEASU

Azeria (*Vulpes vulpes*)

Une honetan Sakanan dugun kanidoen familiako kide bakarra azeria da. Une honetan diot, Nafarroako eta Euskal Herriko hainbat gunetan bere lehengusu nagusia antzeman izan delako, ulertuko duzuen moduan, otsoaren inguruan ari naiz hizketan.

Mundu mailan hedapen zabalena duen haragijalea da maiatzeko protagonista. Ipar hemisferio ia osoan zabaltzen da, eta Australian ere gizakiok sartu genuen. Habitat ia gehienak kolonizatu izan dituen animalia da, tundran zein basamortuetan aurki daiteke.

Garai honetan azeri gordelekuetan kumeak daude. Gordelekuak hainbat lekutan ezarri ahal dituzte, azkonarrek utzitako galeriak preziatuak izaten dira baina hutsik geratutako bordak edo haritz ustel baten enborra nahikoa izan daiteke. Kumeek hilabetea bete dute eta begiak ireki dituzte, gordelekutik ateratzeko ausardia batzen dute eta haien artean borrokatzen jolasten dute. Modu honetan harrapakinak harrapatzeko trebezia garatzen dute. Kumeak dituen azeri-zulo baten jarraipena egitea ikusgarria da, kumeen jokoak eta gurasoek hartzen dituzten lanak behatzea esperientzia

suspergarria da. Urte amaieran kumeak emantzipatzeko unea iristen da, normalean ar gazteak lehenago uzten dute haien lurraldea, emeei ordea, egonaldia luzatzen uzten diete gurasoek. Urte hasieran, errepideetan mugitzen garenok, kotxeekin talka egin ostean hildako azeri asko ikusi ohi ditugu. Une horretan gazteak dispertsioan daude eta autobiak zein bideberriak dira haien arrisku nagusienetarikoa bat.

Azeria izaki oportunista dela aipatzen da, edozein baliabide ustiatzeko gai den animalia hain zuzen ere. Garaiaren zein habitataren arabera bere elikadura moldatu ahal du. Sarraski, intsektu, fruitu, karraskariak, txorien arrautzak eta narrasti txikiak bere dietaren parte dira. Eta nola ez, gaizki itxitako edo behar ez den moduan zaindutako oilategiak ezin hobe ustiatzen ditu. Hala da, Pako, azeriak oilategian triskantza egin badizu ez da azeriaren errua, zurea baizik. Oilategia ondo itxita eta zaindua egotea zure ardura da, azeriari ez eman erraztasunik ez baititu behar. Gaztelaraz oso gustuko dudan esaera existitzen da eta hurrengo dio: *El que tenga hacienda que la atienda y si no que la venda*. Honekin dena esanda, ezta?



XABIER LOPEZ SAEZ DE ASTEASU

Testu hau irakurtzen ari zaretenon artean askok *David el Gnomo* marrazki bizidunen serieaz gozatu zenutela badakit. *Swift* azeria, zuhurtasunaren irudia zen eta Davidi uneoro laguntzeko prest zegoen. Finlandian *revontulet* hitza erabiltzen da aurora borealak izendatzeko. Honen itzulpen literala, azeriaren sua da, hauen buztan luzeek korrika egitean zeruan margotzen dituztela

esaten baita. Ederra ezta? Zuei ere *Swift* azeria lasterkan iparraldeko argiak zeruan margotzen burura etorri zaizue?

Naturan oportunista izatea dohain bat da. Beste arlo batzuetan, aldiz, oportunismoa gaizki ikusitako ezaugarria da. Politikan, adibidez, formazio politiko desberdinetan eskrupulu gabe jardun izan duten pertsonaiak gogora

etortzen zaizkit. Azeriaren kasuan, oportunismoa, malgutasun, erresilientzia eta mudakortasunarekin erlazionatu ahal dut. Bestalde, aipatutako politikarien kasuan, duintasun ezarekin bakarrik erlazionatu dezaket. Ikusten duzuen moduan, hitz bakarra, baina kutsu arras desberdina izan ahal duena.

Bizilagun bakoitzak dolua jasateko eta igarotzeko modu desberdinean jokaten du. Ezagutzen nautenek une hauek amorruz janzten ditudala esaten didate. Agian idazki honek amorru pittin bat erakusten du, nire egoeraren erakuslea besterik ez da. Azken lerro hauek duela aste bat joandako lagun bati eskaini nahi dizkiot. Sakanako azeri zein bestelako piztiak gogotsu zaindu izan zituen lankidea. Berarekin okil mehatxatuen lurralde zein kabiak bilatzea bezalako planik ez zegoen. Haraneko baso, mendi eta larreak zuk zaindu zenituen moduan zaintzea besterik ez zaigu geratzen. Bidaia on lagun! Agur, Ibai.

DUELA 25 URTE...



Akabo kuartela

Negoiazio luzeen ondoren Etxarri Aranazko Udalak Guardia Civilaren kuartela itzultzea lortu zuen. 1992ko garilaren 2tik hutsik zegoen kuartela. Eraikina bota, espazioa lurrez estalita txukun uzteko udalak 799.000 pezeta (4.802 euro) ordaindu zituen. Hura bota ondoren lorategia eginen zen. Udalak 1956ko garagarriaren 23an kuartela egiteko 129.600 pezetako (778,9 euro) dirulaguntza eta 57.341 pezetatan (344,62 euro) baloratu-tako 2.435 m²-ko lur saila doan eman zion Estatuari.



Cristobal Goikoetxea Goikoetxearen etxe parean garbiketa lanak egiten.



Atxumendi kalean bi kamioi betetzeko adina kaskailu jaso zuten.

Menditik behera etorri zen uholdea

Domekako uholdeak hogeit bat etxeri eragin zien. Kalteei aurre egin ahal izateko adin guztietako iturmendiarrak 22:00etaraino aritu ziren lanean. Hurrengo egunean ere senideak eta lagunak etxeetan laguntzen ari ziren, baita kaleak garbitzen ere

ITURMENDI

Iturmendiarraren memorian betirako iltzatuta geldituko den gertakaria da maiatzaren 4ko, domekako, uholdea. 17:00etatik aurrera gogoz hasi zen euritan eta bi ordutan 63 litro metro koa droko zenbatu zituzten. Urbasatik jaisten diren eta, kanalizazioen bidez, herria lurpetik zeharkatzen duten bi erreken emaria asko handitu zen. Atxumendiko erreka bidera ateratzen. Ur emari horri Ilarradiko pistatik jaisten zena batu zitzaion eta ur guztia Atxumendi kalera iritsi zen, Elizalde kaletik plazara eta Arloskabidetik autobiarantz jo zuen. Ibilbide horretan urak bideko kaskailu guztia aipatu kaleetan utzi zuen, Atxumendin bereziki. Kalean kaskailua pilatu zenez, ura etxetara bideratu zen eta, sekula gertatu gabekoa pasa zen: ura etxetan sartu zen. Eleuterio Sanz Lopez de Goikoetxearenean, esaterako. Autobia ondoko etxebizitzetako garajeetan urak metro erdiko altuera hartu zuen.

Sarateko errekaen emaria ere asko handitu zen. Lurpeko kanalizaziora sartu aurretik metalezko hesia jarrita dago adarrak, enborrak eta harri handiak lurpeko pasabidean ez sartzeko. Sarbide horrek txurrutelairena egin zuen eta urak gainezka egin zuen. Gainera, han bertan hondakin ugari pilatu ziren. Txorralde kalea erreka bihurtu zen eta Zirrinkale kalean behera egin eta Estafeta kaleraino iritsi zen zati bat. Bestea, Barrenkale kaletik behera ibairaino joan zen.

Txorraldeko garbitokiaren ondoan dagoen Azkargorta Galartza familiaren etxeko bajejan urak ia metro bateko altuera hartu zuen. Paretan zuloa egin behar izan zuten ura ateratzeko.

ITURMENDIARREREK EMANDAKO LAGUNTZA ESKERTU DU UDALAK, BAITA BESTE UDALEK ESKAINITAKOA ERE

tzeko. Estafeta kalean normalean plaza aldeko urak jasotzen badiutuzte, domekan Zirrinkalekoak izan ziren. Horregatik, esaterako, Cristobal Goikoetxea Goikoetxeak lurrez betetako zakuak eta 45 cm-ko ohola jarri zituen, ura etxean sartzeara eragozteko. Halakorik ezin du egin Gema Urdaniz Etaio, landetxea baitu eta sarbideetan ezin du oztoporik jarri. Bere bajejan 60 cm-ko altuera hartu zuen urak.

Kaltetuak laguntzeko eta kaleak garbitzeko domekako 22:00ak arte ibili ziren adin guztietako iturmendiarrak. Batean eta bestean suhiltzaileak etxetatik ura ateratzen eta kalea garbitzen aritu ziren ere. Udalak herritarrek emandako laguntza eskertu du. Bere baliabideak eskaini zituzten udalei ere esker ona adierazi zien. Astelehenean garbiketa lanak segitzearekin batera, balorazio eguna izan zen. Udalak egoera aztertuta kalteak konpontzeko dirulaguntzak eskatzeko kudeaketak egin ditu.



Etxetik ateratakoak kalean garbitzen.



Azkargorta Galartza etxeko leiho ondoan dago ura ateratzeko egindako zuloa.

Elkar zainduz, elkar indartuz

Elkar zaintzen duten emakumeak programaren bigarren edizioa martxan da. Alderdi fisiko eta emozionalean zentratuz, emakumeen ongizatea hobetzea helburu duen egitasmoa

Miren Mintegi Claver ALTSASU

Pasa den apirilaren 2an eman zitzaion hasiera Elkar zaintzen duten emakumeak programaren bigarren edizioari. Pasa den urtean, 2024an, izan zen egitasmoaren lehen edizioa, eta aurren, berriz ere, aurrera atera da. Altsasuko Udala, Altsasu, Olatzagutiko eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua izan dira proiektu horren sor-kuntzaz zein antolakuntzaz arduratu direnak. Programak hamabi asteko iraupena du, apirilaren 2an hasi zen eta ekainaren 19an amaituko da.

Helburu nagusi batekin sortu zen programa hau: Altsasuko emakumeen ongizatea bermatzea eta hobetzea, alderdi emozional zein fisikoan zentratuz. Jarduera fisikoari dagokionez, arduraduna Maalen Beraza Etxarri, Ataboko kirol hezitzailea da. Eta, alderdi emozionalari dagokionez, Ana Beaumont Hernandez psikologoarekin egiten dituzte saioak. Horietaz aparte, Anitzartean zerbitzuko Kulturarteko bitartekari bat ere badago, egiten dituzten saioetan laguntzeko, Rabab Riden itzultzailea.

Pasa den urtean, bi talde atera ziren, talde bakoitza hamabi emakumek osatuta. Aurren berriz, hemezortzi emakumek osaturiko talde bakarra. Programan parte hartzen duten horien artean, Aicha, Drifa, Fatima, Fatima, Naima eta Nora daude, emakume magrebtarrak denak.

Egitasmoaren bigarren edizioa da aurtengoa eta baita Drifa, Fatima, Fatima, Naima eta Norak parte hartzen duten bigarren

urtea ere. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun zerbitzuko gizarte hezitzaile Bego Zestau Baraiarren bidez ezagutu zuten programa. Emakumeek kirola egiteko beharra ikusten zuten eta, beraz, eskakizuna egin zuten. Fatimak adierazi duenez, "guk eskatu genion Begori ea posible izango litzatekeen horrelako zerbait egitea". Kirola egiteko behar eta nahia zutela azpimarratu du Fatimak, gainera.

"Indartsu eta osasuntsuagoa sentitzen naiz"

Maalen Beraza irakasleak antolatzen dituen kirol saioei dagokionez, astean bi ordu biltzen dira eta bertan "ariketak, jolasak eta entrenamenduak" egiten dituzte. Norak, gainera, kirolaren beharra ikusten zuen bere "osasuna hobetzeko eta gorputza indartzeko". Gorputzak aktibo mantentzea eta aurretik ekar zeza keten min edo nekeak atzean utzi ahal izatea dira haien helburuak, besteak beste. Tentsioak askatzea eta gorputzak lasaitzea. "Programa hasi nuenetik, kirolaren onurak eta emaitzak asko nabaritu ditut nire gorputzean". Aichak bere gorputza "askoz indartsu eta osasuntsuagoa" sentitzen du.

Programa osoan zehar, Rabab Riden, Anitzartean zerbitzuko kulturarteko itzultzailea dago. Eta bera noizbehinka kirol saioetara joaten da. "Aurrerapen handiak" ikusten ditu emakume guztiengan. "Lehen egunetan bertaratu nintzen lehen aldiz, gero, hamar egun beranduago, eta hobekuntza handiak ikusi ditut haien egoera fisikoan. Lehen egunetan nekez egiten zituzten

ariketak, orain oso ongi egiten dituzte".

Ana Beaumont psikologoarekin, aldiz, programan zehar, guztira ordu eta erdiko sei saio daude antolaturik. Bertan, emakumeen hitzetan, "zintzotasun" asko dago. Fatimak hobekuntza handiak sentitzen ditu saio horien ondoren, "Askoz hobe sentitzen naiz". Funtzionamenduari dagokionez azaldu duenez, "Anak galderak egiten dizkigu eta guk erantzuten dugu". Gainera, "gutxi garenean, errazagoa" dela azpimarratu du.

"Bertan esaten dena, bertan geratzen da"

Emakumeek azaldu dutenez, saioak "oso askatzaileak" dira. Psikologoak orokorrean hitz egiten du, eta gero bakoitzak modu desberdin batean erantzun dezake. Baten-batek zerbait kon-

"INDARTSU ETA OSASUNTSUAGOA SENTITZEN NAIZ" AICHA

"BERTAN ESATEN DENA, BERTAN GERATZEN DA" DENAK

"HEMENGO HERRITARREKIN INTEGRATU NAHI DUGU" NAIMA

tatu nahi badu, bertan esaten du. Beste batzuk besterik gabe galderaren inguruan haien buruan hausnartzen dute. Naimak dio "asko pentsarazten" diela. "Nik bakarrik pentsatuko ez nukeen zerbaiten inguruan zalan-tzak izatera eramaten nau. Zerbait gauza aldatu beharko nituzkeela edo beste jarrera bat izan beharko nukeela zenbait egoeren aurrean". Azpimarratzen dute, gainera, ez dagoela inolako pre-siorik eta "oso gune segurua" dela. Beraien artean konfiantza handia dute: "bertan esaten dena, bertan geratzen da".

Ana Beaumont eta Maalen Berazarekin egiten dituzten saioez aparte, asteazkeneko Gure Etxea eraikinean elkartzeko dira haien egunerokotasunaren inguruan hitz egiteko, edota besterik gabe elkarrekin egoteko. Bertan Rabab Riden itzultzailea ere egoten da.

"Hemengo herritarrekin integratu nahi dugu"

Egitasmoaren helburu nagusia, Altsasuko emakumeen ongizatea hobetzea da. Eta, horretarako, haien emozioak zein egoera fisikoa lantzen dira. Beste helburu batzuk ere badaude, emakumeek haien buruei ezarritakoak. Helburu horien artean daude "gorputzak indartzea, mina kentzea eta zamak arintzea". Naimak azaldu du, gainera, haien helburu emozional zein fisikoez aparte beste hainbat helburu dituztela. "Hemengo herritarrekin integratu nahi dugu". Herriaren parte izan, eta beste herritar guztiek bezala bertako egunerokotasuna bizi nahi dutela azpimarratu dute.

Orain arteko proiektuaren balorazio bat egin dute emakumeek eta denek positiboki baloratzen dute. Bai pasa den urtetik daudenak bai aurren hasi direnak. Denak "oso gustura" daudela diote eta orain arte onura asko jaso dituztela programari esker. Norak bere gorputza fisikoki askoz indartsuagoa sentitzen du, "nire gorputza osasuntsuagoa sentitzen dut, lehen neuzkan minak desagertzen ari zaizkit eta askoz zama gutxiago sentitzen dut. Ariketei esker gorputza libreago sentitzen dut". Programa bukatu arte zein beraien bizitzetan, "hobetzen jarraitu" nahi dutela diote. Haien buruekiko zein bizitzetikiko hainbat ideia





Elkar zaintzen duten emakumeak programako parte hartzaileen eskuak. MIREN MINTEGI

eraldatzea lortu baitute proiektua hasi zenetik.

Balorazio positiboa egin dute eta alderdi txarrei dagokienez, ez dute gabeziarik edo gauza txarrik ikusten. "Dena ongi" dagoela diote, "ez nuke ezer aldatuko". Hori bai, proposamenak gehitzearen aldekoak dira denak. Fatimak dio gustatuko litzaiekeela saioak "maiztasun handiagoarekin" izatea. Izan ere, pasa den urtetik egindako programaren eta aurtengoaren artean, geldialdi bat egon da. Haien ustetan, jarraikotasun handiagoa izan beharko luke. Hau da, urte osoan zehar geldialdirik gabe izatea. Fatimak azaldu duenez, "nik nahiago nuke urte osoan zehar egitea, astero, eta astean gehiagotan. Agian egunean ordu gutxiago eginez, baina maiztasun handiagoarekin".

Maiztasun handiagoarekin egite horrek, haien egoera fisikoari lotzen diote. Kirol ordu gehiago daude antolaturik, psikologoarekin konparatuz. Baina, emakumeei ordu gehiago gustatuko litzaizkiekela dio Naimak. "Kirol ordu gehiago ondo egongo litzateke, izan ere, ariketak ikasten ditugu klase orduetan, baina, etxean bakarrik egitea ez da hain erraza". Ariketaren bat gaizki egitea eta min harteak kezkatzen ditu, besteak beste.

"Honen antzeko proiektu gehiago nahi ditugu"

Denbora tarte edota iraupena zabaltzeaz aparte, "irteerak egi-

"HONEN ANTZEKO PROIEKTU GEHIAGO NAHI DITUGU" FATIMA

"AHAL DUTEN HEINEAN, IZENA EMATERA GOMENDATZEN DITUT" NAIMA

"SAIOAK BUKATZEN DITUGUNEAN, ZORIONTSU ATERATZEN GARA" DENAK

tea" gustatuko litzaiekeela adierazi zuen Fatimak. Herritik atera, mendira joan, ariketak kalean egin... "Noizbehinka paseoak ematea, herritik kanpo irteerak egitea, eta honen antzeko proiektu gehiago nahi ditugu". Hau da, "orain arte dagoena zabaldu zein hobetu" nahi dute.

Adierazi dutenez, Elkar zaintzen duten emakumeak programan parte hartzen duten emakume askok, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatzen dituen beste hainbat programetan ere parte hartzen dute. "Egun bateko tailerrak izaten dira, adibidez, orain dela gutxi Bakaikun egon ginen yoga egiten". Horrelako ekintzak gustuko dituzte eta oso positiboki baloratzen dituzte gainera. Horrelako gauza, egitasmo, ekin-tza... gehiago nahi dituzte.

"Izena ematera gomendatzen ditut"

Pasa den urteko ediziotik aurtengo ediziora, beste emakume batzuek eman dute izena. Nahiko egitasmo berria denez gero, ezagutaraztea da oraingo helburuetako bat. Bertan parte hartzen ari direnek asko gomendatzen dute. Naimak adierazi duenez, kaletik doanean bere ezagunei programaren inguruan mintzo zaie: "kaletik ezagun batekin elkartzen naizenean, programan zer moduz goazen galdetzen ditate eta nik beti oso gustura nagoela esaten diet. Ahal duten heinean, izena ematera gomendatzen ditut. Eta, galdetzen ez didatenei nik esaten diet zeinen gustura parte hartzen dugun bertan, animatzera gonbidatuz".

Berak sentitu dituen onurak transmititzen dizkie, taldea zabaltzeko helburuarekin. Beraien eguneroko harremanetan dauden emakumeei gomendatzen diete parte hartzea, hau da, emakume magrebtarrei. Datorren urtera begira, programaren beste edizio bat egongo da eta, beraz, emakumeen parte hartzea bultzatzea gustatuko litzaieke. "Gustatuko litzaiguke proiektu hau betirako izatea, edo behintzat urte gehiagoz luzatzea".

Hitz batez programa deskribatzerako orduan, sei emakumeak ados daude, haientzat, "dibertigarria" da. "Saioak bukatzen ditugunean, zoriontsu ateratzen gara, lasai, alai eta gorputz askearekin".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 9

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Verdantz Dantzaz konpainiaren ikuskizunaren eta Altsasu BAH!, Jesusen Bihotza eta Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako ikasleen dantza taldeko dantzariekin ikastetxetan egindako erresidentzietan egindako koreografiaren emanaldiak, Oholtzara Salto programaren barruan.

18:00etan, Iortia zabalgunean.**ALTSASU Gazte agenda.**

Aholkularitza emozionala Kaeruren eskutik.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**LAKUNTZA Batzarra.**

Parkea martxan jartzeko eta hurrengo lanak definitzeko bilera.

18:30ean, parkean.

LARUNBATA 10

ALTSASU Mendi martxa.

XVI. Hiru Mendi Zerrak mendi martxa, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta. Bi ibilbide: Luzea, 45 kilometro (Nafarroako eta Euskadiko

Mendi Federazioetako ibilbide luzeetako zirkuituan jasoa) eta Motza, 24,4 kilometro.

07:00etan, Burunda frontoitik.**IRURTZUN Txirrindularitza proba.**

Irurtzungo V. La Peluso martxa zikloturista, Lapeluso Ciclyng Taldeak antolatuta. Hiru ibilbide: Luzea, 153,47 kilometro; Ertaina, 111,51 kilometro, eta Motza, 89,7 kilometro. Josefina Arregi Klinikaren alde.

08:30ean, plazatik.**LAKUNTZA Mendi irteera.**

Zabalarte mendi taldearen irteera: Maeztu — Izki ibilbidea.

09:30ean, plazan.**URRITZOLA Mendi irteera**

Gatzelura irtenaldia Luis Berazarekin.

10:00etan, iturritik.**EGIARRETA Ipuin kontaketa eta tailerra.**

Askatasun doinua Mitxel Elortza idazlearen eta Mariñe Jauregi ilustratzailearen Palestinaren inguruko ipuinarekin kontaketa eta tailerra, Irurtzungo eta Arakilgo Kultur arteko III. Elkartasun Zikloaren barruan.

12:00etan, elkartean.

UTZITAKOA

ALTSASU Mari, lamiak eta basoaren aztarnak Jaio Lertxundiren erakusketa.
Maiatzaren 18ra. Iortia kultur gunean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

El contable 2

Igandea 11 19:30

La quimera, Filmoteka Nafarroan
programaren barruan, **Guillermo Lobatok aurkeztuta**

Astelehena 12 19:00

La buena letra

Osteguna 15 19:00

LAKUNTZA Bertsolaritza.

Sakanako Bertsolari Txikien eta Bertso Eguna.

12:00 Jolasak eta gynkana, plazan.

13:00 Sakanako gaztetxoaren eskolarteko kanporaketa, liburutegian.

14:00 Bermuta, Lakuntzako herri eskolaren Zarata txarangarekin.

14:30 Haurrendako bertso bazkaria Eneko Lazkoz eta Saioa Alkaizarekin, Lakuntzako Pertzan.

15:00 Helduendako bertso bazkaria Eneko Lazkoz eta Saioa Alkaizarekin, Lakuntzako Pertzan.

18:15 Bertso poteo-kalejira Idoia Granizo, Josu Sanjurjo eta Maddalen Arzallusekin.



OSTIRALA 9

OLATZAGUTIA Izena ematea eta eskulanak.**Arratsaldean, kultur etxean.****LAKUNTZA Izena ematea, Aiaupenanik euskara taldeak antolatuta.****18:30etik 20:00etara, plazan.****ITURMENDI Batu**

Euskaraldiari! Gurdi kalejira.
19:00etan, herrian zehar.

URDIIN Izena ematea eta photocalla.**19:00etan, udaletxearen aurrean.****ALTSASU Txapak jaso eta izena eman.****19:00etatik 21:00etara, Foru plazan.**

LARUNBATA 10

ALTSASU Txapak jaso eta izena eman.**10:30etik 13:00etara, San Joan plazan.****OLATZAGUTIA Izen ematea.****Goizean, gaztetxean.**

ETXARRI ARANATZ Izena ematea eta txapa banaketa.
13:30etik 14:30era, plazan.

ITURMENDI Ospatu euskaraz! Photocalla.**20:00etan auzatean, plazan.**

19:30 Haurrendako merendola, plazan.

LAKUNTZA Argazkia.

Sorionekuak euskara etorkizunerako zubi argazkia, Aiaupenanik euskara taldeak antolatuta.

12:00etan, beheko zubian.**ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.**

IGANDEA 11

LIZARRAGA Txapa banaketa.**Bermutean, elkartean.**

ASTELEHENA 12

ARBIZU Izena ematea eta txapa banaketa.**18:00etatik 20:00etara, udaletxean.**

OSTEGUNA 15

EUSKARALDIAREN HASIERA

ETXARRI ARANATZ Izena ematea eta txapa banaketa.
13:30etik 14:30era, plazan.

LAKUNTZA Hasiera ekitaldia: prentsaurrekoa, argazkia...
18:00etan, plazan.

IRURTZUN Bertso poteoa.
19:00etan, Pikuxar tabernan.

ARBIZU Suziria eta argazkia.
19:00etan, plazan.

LIZARRAGA Hasiera.
Arratsaldean, plazan.

ALTSASU Txapak jaso eta izena eman.
19:30etik 21:00etara, Foru plazan.

OLATZAGUTIA Txupinazoa, txapa jartzea eta topa!
Arratsaldean, plazan.

ZIORDIA Txupinazoa eta txapa jartzea.
Arratsaldean, plazan.

Etxebizitza guztiontzat, negozioia borrokatu batu sindikatura! Euskal Herriko etxebizitza sindikatuaren hitzaldia.

12:00etan, gaztetxean.**OLATZAGUTIA Urteurrena.**

Maisuenea gaztetxearen XXX. Urteurrena: Iraganean ereindako haziek loratzen darraite.

ZORION AGURRAK

**Eneka eta Arhane**

Zorionak lehengusina bikoteari! Maiatzaren 3an Arhanek 8 urte bete ditu eta 12an Enekek 2 urte. Muxu bana familia osoaren partez!



Er **iti** aluminio PVC

Akaborro industrialea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea

12:00 Txupinazoa, gaztetxean.
14:00 Herri bazkaria: babarrun jana, gaztetxean.
16:00 Edu Zardoya bakarriketalaria.
18:00 Kontzertuak, gaztetxearen parean: Skabidean, Nafarroa 1512, Quinkillada, Mandroll, The Marteens eta Bulkada taldeak. Ondoren, Boletus Rumberus Djak.

ALTSASU Gazte agenda.
ODS 13 Jolasa: Klimaren aldeko ekintzak.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Ikuskizuna.
Jeff Toussaint. El hipnotista ikuskizunaren emanaldia: Jeff Toussaint hipnosiaren artista bat da, Europako adierazlerik handienetakoa, eta ikuskizun honek bere jenialtasun artistikoaren gailurra islatzen du. Antolatzailea: Gaizka Martinez de Albeniz Arcauz. Sarrerak: 13 euro (azkenak).
19:00etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 11

ALTSASU Txirrindularitza irteera.
Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Balankaleku – Lareo.
08:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Munduko arrozak.
lortia zabalgunean.
10:00 Ekimenaren hasiera.
13:00 Dastaketa (platera euro bat).

ALTSASU Magia ikuskizuna.
Mago Sun: Houdini, La magia de la TV magia ikuskizunaren emanaldia: Mago Sun Disney Channelen emititzen den Houdini kluba telesailko magoa da eta ikuskizunean denetarikoa magia egonen da: igarkizunak, agerpenak, desagerpenak... Familiarteko ikuskizuna. Sarrerak: 10 euro.
12:00etan, lortia kultur gunean.

SATRUSTEGI Martxa protesta.
Herri isolatua, herri hustua, autobus geltokia orain! Satrustegiko kontzejuak deitutako protesta martxa. Satrustegitik Zuhatzura.
13:30ean, plazatik.

ASTELEHENA 12

ALTSASU Elkarretaratzea.
Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 14

ARBIZU Solasaldia.
Mugimenduaren garapenari buruzko solasaldia.
16:30ean, Kattukan.

OSTEGUNA 15

UNANU Kontzertua.
Iruñeko Liguori Abesbatzaren kontzertua. Zuzendaria: Sergi Moreno-Lasalle. Nafarroako Abesbatzen Federazioak Gogo bete kantuz programaren barruan.
12:30ean, elizan.

OSTIRALA 16

LAKUNTZA Antzerkia.
Astue baño astopotrogoa! Lakuntzako herri eskolak Lakuntzako euskaraz egindako antzezlanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Antzerkia.
Tera -Pia Lorena Arangoa irurtzundarraren antzezlanaren emanaldia.
18:30ean, jubilatuen elkartean.

ESKELAK JARTZEKO:
948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZA barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ERRENTAN EMAN
Lizarragako Azi Iturri Txokoa San Adrian festetan alokatzen da: Enkantea maiatzaren 25ean, igandean, eguerdiko 14:00etan, Azi Iturri Elkartearen bertan. Gutxieneko prezioa 1000 euro izango dira. Diru gehien eskaintzen duenak irabaziko du. Festak ekainaren 14, 15 eta 16an izango dira. Animatu zaitzete!

LEHIAKETAK
Altsasuko festetako kartel lehiaketa: Festetako programaren azala eta kontrazala izango diren kartelak aukeratzeko, parte hartzeko oinarriak eta informazio gehiago www.altsasu.net web orrian, loriakultura@altsasu.net emailera idatziz edota 948 564 272 telefonora deituz.

Irurtzungo jaietako herri kartel lehiaketa: Jaien egitarauaren azala izango da kartel irabazlea, haur eta helduen kategoriak daude eta sariak egonen dira. Informazio gehiago eta oinarriak www.irurtzun.eus web orrian.

Ziordiko Gaztetxeko I. Frontenis txapelketa: Izen emateak maiatzaren 11ra arte.

IKASTAROAK
Altsasuko Udaleko Berdintasun arloak antolatutako ahalduntze ikastaroak: Nola hitz egin jendaurrean maiatzak 10, 17 eta 24, 10:00etatik 13:00etara, sormen tailerra maiatzak 13,20,27 eta ekainak 3 17:30tik 19:30era, sendabelarrak ezagutzen maiatzak 26 eta ekainak 2,9 eta 16, 18:00etatik 20:00etara.

Informazioa eta izen emateak Altsasuko Udaleko Berdintasun Arloan.

Emakumeendako doako tailerrak Altsasun: Maiatzaren 17an defentsa pertsonala, maiatzaren 31n indar tailerra eta ekainaren 7an pelbis-zorua eta gorputz jarrera. Informazio gehiago Altsasuko udaletxean.

Sakanako bertso eskolak: LH4tik DBH4ko gazteei zuzenduta Altsasu, Irurtzun eta Lakuntzan. Informazioa eta izen emateak www.bertsozale.eus/nafarroa, nafarroa.transmisioa@bertsozale.eus edota 948 143 747 telefonoan.

OHARRAK
Odol emateak Etxarri Aranatzen: Gaur, maiatzak 9an eta datorren

ostiralean, maiatzaren 16an, 17:00etatik 21:00etara.

Lizarragako San Adrian festetan jaioberriei harrerera: Zapia jaso nahi duenak izena emateko epea zabalik du.

Minaberri itzulpen-bekaren II. Edizioa: Itzultzaile hasiberriei begira sortua da itzulpen-beka, eta bekaren hartzailea mentoretza baten bidez trebatuko da itzulpengintzan. Mentoretza CEDRO erakundearen laguntzaz egingo da. Informazio gehiago EIZIEn webgunean.

Sakanako mintzakide taldeak: Ziordin ostiralean 17:00etan liburutegian, Olaztin astelehenean 18:30ean Ogiberrin, Altsasun astelehenean 16:00etan Gautxorin, ostegunetan 20:00etan Lezean (Altsuko eskua) eta ostiralean 9:00etan

Kaixon eta 10:00etan Zubezia elkartean, Etxarri Aranatzen ostiralean 18:30ean Xapateron, Arbizun asteartetan 16:00etan Aralar tabernan, Lakuntzan asteazkenean 18:15ean jubilatuen elkartean eta Irurtzunen asteartetan 18:00etan Iratxon eta ostiralean 9:45ean edota 19:00etan Pikuxarren.

JALGI HADI! dokumentalerako crowdfunding kanpaina abiatu dugu AEK-Korrikak eta Mirokutana ekoiztetxeak: Euskara maite duen edonorentzat ari dira dokumentala egiten. Euskara bizirik ikusi nahi baduzu, egin klik <https://eu.goteo.org/project/jalgi-hadi-dokumentala> eta lagundu crowdfunding bitartez!

Poltsiko guztietarako moduko diru ekarpenak egin daitezke, 20 eurotik hasita. Martxoaren 17tik apirilaren 25era bitartean eman dezakezu laguntza. Zure laguntzaz, hau posible izango da!

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275
IRAGARKI@GUAIXE.EUS
WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

EMAKUMEZKOEN KOPA

KOPAREN BIGARREN JARDUNALDIA
Lagunak - Altsasu 1-2

SAILKAPENA

EMAKUMEEN KOPAKO 4. MULTZOA

1	Altsasu	6
2	Ardoi	3

HURRENGO JARDUNALDIA

MAIATZAK 11, IGANDEA

18:00 Altsasu - Ardoi (Dantzaleku)

Altsasu, kopan aurrera egitera

Altsasuk kopan aurrera egin nahi du, baina horretarako Ardoi mendean hartu beharko du.

GIZON ERREGIONALA

31. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Aldo Zaharreko Kluba - Altsasu	0-8
Etxarri Aranatz - Univ. de Navarra B	9-0
San Jorge - Lagun Artea	4-3

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Altsasu	89
2	San Jorge	77
3	Etxarri Aranatz	73
7	Lagun Artea	49

HURRENGO JARDUNALDIA

MAIATZAK 10, LARUNBATA

12:00 Altsasu - Baztan B (Dantzaleku)
20:00 Arga Ibaia - Etxarri (San Jorge)

MAIATZAK 11, IGANDEA

18:30 Lagun A. - Berriozar (Itxesalde)

Altsasu, galdu gabe

Garaipenetik garaipenera doa Altsasu. Ligako txapeldunak liga partidarik galdu gabe bukatzea du helburu.

Etxarri, dinamika onean segitzera

Arga Ibaiaren kontra garaipenaren xendari jarraitu nahi du Etxarri, igoera fasera arte.

Lagun Artea, buelta ematera

Sailkapeneko seigarren postuan sartzeko, Berriozar mendean hartzea da lakuntzarren lehen pausoa.

FUTBOLA Zaldia bosgarren sailkatu da Elomendiko ligan

Despeditu da Elomendiko Futbol Txapelketa. Asteburuan 26. eta azken jardunaldia jokatu zen, eta Arakilgo Zaldia taldeak lehia oso estua izan zuen Bar Olmo liderrarekin. Binako berdinketarekin bukatu zen lehia. Bar Olmok irabazi du Elomendiko txapelketa (68), Salinasen (64 puntu), Utergaren (55 puntu) eta Elomendiren (52 puntu) aurretik. Arakilgo Zaldia bosgarren sailkatu da (51 puntu). Berehala Zaldia Elomendiko Kopan murgilduko da.

Arbizu eta Larraza, GRABNI-ko sakandarrak

PILOTA Nafarroako selekzioak irabazi du GRABNI selekzioen arteko pilota txapelketa, frontoian eta trinketean. Aaron Arbizu eta Oihan Canabal eskuz binakako finalean erori ziren, baina Maialen Larrazak eta Elaia Zabalzak paleta gomakoa irabazi zuten

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko pilota selekzioek jokaturako GRABNI txapelketa Nafarroako selekzioak irabazi zuen asteburuan, bi modalitateetan, ezker paretako frontoian eta trinketean, bigarren urtejarraian gailenduz. Frontoiko 28 finaletatik 18 irabazi zituen Nafarroak, eta trinketeko 10 finaletatik 5. Beraz, txapeldun bikoitza da. Bi etxarriar lehiatu dira GRABNI-an: Aaron Arbizu pilotaria eta Maialen Larraza palista.

Arbizu, pena pixka batekin

Aaron Arbizu senior mailako gizonezkoen binakakoan lehiatu da. "Ligaxkan bi partida jokatu nituen, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren kontrakoak. Gipuzkoaren kontrakoa oso partida gogorra izan zen. 22-21 irabazi genuen. Bizkaiaren kontrakoa ere borrokatua izan zen; 22-17 gailendu ginen". Arabaren eta Errioxaren kontrako lehiak Alduntzinek eta Antton Apezetxeak jokatu zituzten. Gipuzkoaren kontrako finala Arbizuk eta Canabalek jokatu zuten. Ligaxkan bezala, oso estua joan zen lehia. "Aurretik jarri zitzaizkigun, 20-13, eta pixka bat berandu erantzun genuen. 22-18 galdu genuen, pena".



Aaron Arbizu eta Maialen Larraza, GRABNI Txapelketako finalista etxarriarrak. UTZITAKOA

Larraza, harro

Maialen Larraza bigarrenen lehiatu da GRABNI-an, juniorren binakako paleta gomakoa modalitatean. Bi urte hauetan Espinaldeko Elaia Zabalzarekin osatu du bikotea. "Iaz ligaxkako partida guztiak jokatu genituen, eta guztiak irabazi, baina Bizkaiaren kontrako finalean erori ginen" gogoratu du. Aurten, ligaxkako partida guztiak irabazita iritsi ziren finalera baita ere, eta finalean arerioa berdina zen: Bizkaia. "Horregatik beldur edo errespetu pixka bat genuen finalari be-

gira. Ez zen iazko bikote berdina, aurtengoak Inunciaga eta Uxue ziren".

Finala oso estua izan zen, maila handikoa. "Oso parekatua izan zen; atzetik joaten ginen, baina oso berdinduta. 20. tantoan lau tanto segidan egin genituen, eta hor erabaki zen finala". Azkenean, 30-24 gailendu ziren nafarrak. "Gure finala irabazterakoan oso harro sentitu nintzen, eta baita Nafarroak selekzio gisa bai trinketean eta bai frontoian irabazi zuela jakin genuenean. Oso berezia izan zen".



GRABNI-ko irabazlea, Nafarroa, frontoian eta trinketean lortutako txapeldunen kopekin. Tartean, Arbizu eta Larraza. FEDERAZIOA



Izena ematea dagoen proba. ARTXIBOA

Aitzkibil kros solidarioak Euskaraldiarekin bat egingo du

ATLETISMOA Maiatzaren 17an jokatu da, Bakaikun. Izena ematea zabalik dago

Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain artean jokatzeko den Aitzkibil elkartasun kros solidarioaren 19. edizioa da aurtengoa. Bakaikun jokatu da, maiatzaren 17an, Bakarrekotxe, Aitzkozar eta Tintinurri elkarteek antolatuta, Dantzaleku Sakana atletismo klubaren laguntzarekin eta babesleen babesarekin. Data horrek Euskaraldiarekin bat egiten duenez, lasterketan lortutako irabazirik euskararen erabilera sustatzeko ekintzetara bideratuko direla azaldu du antolakuntzak.

Aurretik, 17:00etan, kategoria txikiko lasterketak jokatu dira, eta 18:00etan abiatuko da proba nagusia. Korrikalariak bi aukera izango dituzte: hiru herriak biltzen dituen lasterketa luzea osatzea (7,6 km), edo Bakaiku eta Iturmendi artean jokatu den lasterketa motza egitea (4,3 km).

Izena ematea zabalik dago Dantzaleku-Sakana taldearen webgunean, baina azken orduan animatzen direnak probaren egunean bertan egin dezakete izena ematea, lasterketa hasi baino ordu bat lehenago, Bakaikuko Bakarrekotxe elkartearen.

Korrikalari guztiek oroigarria jasoko dute, eta auzate ederra. Kategoria guztietako lehen hirurek, aldiz, trofeoa.



Luca, maillot gorriarekin. DANENA

TXIRRINDULARITZA Luca Martinez, Nafarroako txapelduna

Maiatzaren lehenean Lacturale Sari Nagusia jokatu zen, Etxe-berrin hasi eta Golaratzen des-peditu (87 km) eta juniorren mailako errepedeko Nafarroako Txapelketa zena. Luca Martinez lakuntzarrak (Tolosa/Danena) sekulako erakustaldia eman zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara, Nafarroako txapelduna. Ekaitz Perez (Zu eta Biok) 6. sailkatu zen, eta Ekain Imaz (Danena) 8.



Iker Palacios, podiumean. ARITZ BIDEGAIN

AUTOMOBILISMOA Iker Palacios, Izpegiko Igoerako podiumean

Erratzuko VI. Izpegiko Igoeran 44 pilotuk hartu zuten parte. 5,2 eremuko igoera lautan igo zuten. Monoplazetan Aitor Manso (BRC B49) izan zen txapelduna (3:22), Iker Palaciosen (BRC B52, 3:30) aurretik. Palacios hamargarren klaseko onena izan zen, eta Alberto Villar (BMW E36, 3:56) laugarren klaseko onena. Mikel Mazkianek (Seat 600 JTR) ezin izan zuen proba bukatu.

CBASK, titulua lortzeko azken erasorako prest

SASKIBALOIA CBASK Xabi Gorriz Tattoos taldeak emakumezkoen lehen senior mailako Lauko Finala jokatu du asteburuan. Konfiantzarekin, gogotsu eta pozik iritsi dira hitzordu erabakigarria. "Disfrutatzea" aterako dira, horrela "arriskutsuagoak" direlako

M.B.G. ALTSASU

Emakumezkoen lehen senior mailako Altsasuko CBASK Xabi Gorriz Tattoos taldeak ligako titulua irabaztea du jokoan asteburuan. "Guk dakigula, lehen aldia da CBASK-eko emakumezkoen talde bat Lauko Finalera sailkatzen dena" azaldu du taldeko entrenatzaile Eneko Casteigek. Beraz, altsasuarrek historia egiten jarrai dezakete.

Oso motibatuta

Bukaera faseko final laurdenean areriorik gogorrena egokitu zitzaizen altsasuarrei: San Ignacio. "San Ignacio zen faborito nagusia" nabarmendu du Casteigek. Joanekeo partidan altsasuarrek 55-60 galdu zuten euren kontra, etxean, baina Iruñean jokatuak itzuli-ko partidan 61-72 gailendu ziren altsasuarrek, eta markagailua irauliz ligako titulua erabakitze-ko Final Fourrean sailkatu ziren. "Sekulakoa izan zen gureta-ko, azken faseko partidari-ko zailena



Lauko Finalerako prest, motibatuta eta ilusionatuta daude CBASK-eko neskak. UTZITAKOA

zelako. Hori kontuan hartuta, Lauko Finalera oso ongi iritsi gara, alde batetik urduritasun pixka batekin, jakina, baina bestetik itxaropentsu, konfiantzarekin, gauzak ongi egiten ari garelako".

Larraona, lehen arerioa

Lauko Finalak Iruñeko Larraona kiroldegian jokatu da. Finalerdietako lehen partidan, CBASK Xabi Gorriz Tattoos taldeak Larraona Claret taldea izango du aurkari, 17:30ean. Bigarren fina-

lerdia 19:30ean hasiko da eta Ega Perfil Oncineda eta Navasket SF Old taldea lehiatuko dira finalerako beste txartelaren bila. Bi irabazleek maiatzaren 11n, 12:00etan jokatu dute ligako tituluko final handia, Larraonan. Aurretik, 10:00etan, hirugarren eta laugarren postua erabakitze-ko partida jokatu da.

Altsasuarrek Final Fourren atarian "pozik" daude. "Ea zer gertatzen den. Larraonaren kontra partida gogorra dugu, baina aurrera egiteko aukerak baditugu. Oso ongi ari gara lanean, eta oso motibatuta gaude, konfiantzarekin. San Ignacioren kontra bezala jokatzeko badugu, edozeinen kontra irabaz dezakegu" argi du Casteigek.

Ligan bolada kaxkarra izan zuen taldeak. "Sei partidak jarraian galdu genituen, baina, bat-batean, buelta eman genion eta denboraldi bukaera ikusgarria ari da izaten. Presiorik gabe, disfrutatzea ateratzeko deia egin diet taldekideei, horrela arriskutsuagoak garelako". Ea zortea alde duten.

Mutilak, bosgarrena lortzea

Gizonen bigarren maila autonomikoko CBASK Narum fisioterapia ez zen Lauko Finalerako sailkatu, gutxiatik. Bar Soto Gazte Berriarekin ligako bosgarren edo seigarren postuan sailkatzea dute jokoan. Partida bihar jokatu da, larunbata, 17:50ean, Altsasuko Zelandi kiroldegian.



UAE EMIRATES

Arrieta, Girorako gogotsu

TXIRRINDULARITZA Gaur abiatuko den Italiako Giroa Igor Arrieta-ko (UAE Emirates) bere lehen itzuli handia izango da, eta "oso gogotsu" dago. Azken egunak Sierra Nevada kontzentratuta eman ditu. "Ongi prestatuta iritsi naiz. Helburua Ayusok edo Yates-ek Giroa irabaztea da. Nire lana eurak babestea da, baina ea egunen batean niretako aukera sortzen den".



IÑAKI MUJICA

Izagirre, basamortuko titana

HAND BIKE Maiatzaren 1etik 6ra jokatu da Titan Desert Morocco (500 k, 4.000 m desnibela), basamortuko lasterketa gogorra. Iñaki Mujikak Institut Guttman taldearekin debutatu zuen, eta proba gogorra 327. postuan despiditza lortu du (33:49:33). Proba bukatu izana "ezin sinetsi" dabil altsasuarra, eta kategoriako taldekako txapeldun izana ospatzen.

Datorren ikasturtera arte

AIZKORA Sakanako Aizkora Eskolaren 2025. ikasturtea atzo despeditu zen. Etxarriko erdoziatarren Zierbideko bordan hamasei gazte trebatu dira aizkoraren sekretuetan. Ikasitakoa Sakanako Herri Kirol Egunean erakutsiko dute, ekainaren 1ean, Urdiainen

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Autobiatic Etxarri Aranazko irteera hartuta, Lizarragarantz doana, bertan dago Danona oiolotegira daraman bidexka. Bide hori hartuta eta aurrera eginez, ezkerretan dago erdoziatarren borda, Zierbiden. Bide hori makina bat aldiz egin dute azken 11 urte hauetan Sakanako Aizkora Eskolan trebatu diren gazte sakandarrek.

Sakanako Aizkora Eskola 2004. urte aldean jarri zuen martxan Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, herri kirolak indarra galtzen ari zirela jabetuta, aizkora trebatu nahi zuten gazte sakandarrei baliabideak eta materiala eskaini ahal izateko. Axio Flores aizkolaria zenak hartu zuen eskola sortzeko ardura, eta txapeldun handiak izandako Juan Mari eta Floren Nazabalen bordan jarri zuten martxan eskola. Hirurak ibiltzen ziren irakasle lanetan. Juanito Erdozia laguntzera joaten zitzairen. 2014. urtetik aurrera berak hartu zuen eskolaren arduraren erreleboa, nazabaldarrek utzi zutenean, Miguel Angel anaiarekin. Aitarekin batera hasieratik Juanjo semea ere Sakanako Aizkora Eskolan murgildu zen, monitore. "Aita gustura ibiltzen zen nazabaldarrei eskolan laguntzen, baina erai-kuntzan lan egiten zuen, eta denbora gutxi zuen. Jubilatzerakoan tarte gehiago zuenez, nazabaldarren lekukoa hartu zuen eskolan".

Hamasei ikasle

Arrakastatsua izan da beti Sakanako Aizkora Eskola, hasieretatik. Jende askok trebatu nahi du aizkora, baina etxean ez du baliabiderik. Horretarako primeran dago eskola. "Euskal

Herrian dagoen aizkora eskola bakarra da Sakanakoa, eta guk ematen dugu" dio irribarrez Juanito Erdoziak, aizkora zorroztan duen bitartean. Martxoan hasi zen aurtengo aizkora eskola, eta atzo, ostegunarekin despeditu zen. Tarte horretan, astelehenero eta ostegunero hamasei gazte bildu dira erdoziatarren bordan. "Gehienez hama-bi ikasle hartzea, hori da dugun muga, baina hamasei zeuden interesatuta eta pena ematen zigun kanpoan uztea. Nola edo ahala, moldatu gara" azaldu du Juanitok. Urteroko kontu berbera da. "Gipuzkoatik etorri izan dira, euren seme-alabak hartuko digun galdetzer, baina hau Mankomunitateak sakandarrendako antolatzen duen ikastaroa da, eta beti jendez gainezka egoten da. Ezin dugu jende gehiagorik hartu".

"GAZTEAK AIZKORAN GUSTURA DAUDELA IKUSTEAK EMATEN DIDAN POZA..."
JUANITO ERDOZIA

Ikasleak, Uharte Arakilen

Mank-ek XVIII. Ikastetxe arteko herri kirol topaketa antolatu du maiatzaren 14an Uharte Arakilen, 10:00etan. Peio Kañamarek eta Uxue Ansozregiren erakustaldiaren ondoren, LH6. mailako Sakanako 240 ikasle herri kirol proba konbinatueta lehiatuko dira.

Atzeko lana

Sakanako Aizkora Eskolaren atzean lan handia dago. Mank-ek, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, beharrezko egurra jartzen du. Baina egur hori zaindu beharra dago. "Ezin dituzu enborrak hor besterik gabe izan. Busti behar dira, ureztatu. Belarrak jartzen dizkiot gainetik, eta ura bota, hezetasuna izan dezaten. Bestela, lehortzen dira" dio Juanitok. Ondoren, egurra moztu eta enborrak prestatzen ditu. Eta han ditu zain, poz-pozik eskolako ikasleak.

Giro ederra dago erdoziatarren bordan. "Oso gustura etortzen dira guztiak. Iraide Vergara da dugun neska bakarra. Gaur ezin izan du etorri, baina urte mordoa daramatza eskolan; oso gustura egoten da" aipatu du Juanjok, ikasleei argibideak ematen dizkien bitartean: "Enaitz, ongi harrotu, horrela, horrela...". Urte hauetan ez dute istripu larriarik izan. "Sekula ez. Gerta daiteke, baina tontakeriaren bat kenduta, babak, edo halakoak, ez dugu arazorik izan. Distantziak mantentzen saiatzen gara, enborrak aparte jartzen, eta kontua izateko eskatzen diegu".

Ekainaren 1ean, Urdiainen

Sakanako Aizkora Eskolan ikasitakoak ekainaren 1ean Urdiaingo plazara eramango dituzte ikasleek, bertan izango baita aurtengo Sakanako Herri Kirol Eguna. Haiekin batera Sakanako Harri Jasotze Eskolako kideak, soka tiratzaileak eta bestelako herri kirolariak aterako dira plazara. "Egun polita izaten da. Gazteek gustuko dute plazara ateratzea". Tarteka ere beste erakustaldiren batzuk egiten dituzte, Etxarri Aranatz, esaterako".



Astelehenean 2025 denboraldiko azken aurreko saioa egin zuten Sakanako Aizkora Eskolako ikasleak.



Juanjo Erdozia, erdian, aizkolariei ongi harrotzeko eskatuz.



Esperientzia gehiago dutenak beste martxa batean aritzen dira.



Ikasleak. Ikasketa kontuak zirela, zenbaitek ezin izan zuten egon. Ikasleak oso gustura egoten dira erdoziatarren irakaspenak segitzen.



Txikienak aurretik zabaldutako kortean trebatzen dira.



Aritz Oiarbide, kortea ongi segitzen irakasten.



Juanito Erdozia, aizkora zorrozten.



Enborrak busti egin behar dira, ez lehortzeko.



"Egun, Aizkora Eskola aitarengatik egiten da"

JUANJO ERDOZIA AIZKOLARIA

Nola antolatzen duzue eskola?

Aitak prestaketa lan gehiena egiten du: enborrak mantendu, prestatu, jarri eta bilketa lan gehiena. Sakanako Aizkora Eskola teknika ikasteko da. Enborraren kortea nola egin irakasten diegu gazteei, non harrotu behar duten, aizkorakada non jo behar duten... Kortean ongi haztatzea kosta egiten da, urteak pasatu behar dira horretarako. Oso kuzkurtuta hasten badira, gorputza nola luzatu behar duten esan, eta halakoak. Nolanahi ere, aizkora izan beharreko postura ibiliaren poderioz ikasten da.

Hasieratik kortea nola egin behar duten ikasten dute?

Ez. Esperientzia gehiago duten ikasleak dira enborraren kortea hasieratik irekitzen dutenak, eta gero hasi berriek korte hori segitu egiten dute. Bizpahiru urte eramaten dituztenak hasieratik bukaerara arte moztzen dute enborra, eta gehiago daramatenak lan gehiago egiten dute.

Ongi harrotzeko esaten diezue ikasleei. Zer da hori?

Kortea egiterakoan, alde batean kortea zapalago egin behar da, gehiago markatu, eta beste aldean pikuago moztzen da. Hau da, V antzeko bat egiten da, baina alde batean oso apala izaten da, eta bestean pikuagoa. Eta hori esaten diogu ongi harrotzea, alde batean ongi markatzea eta beste aldetik pikuago moztu eta ezpala ateratzea.

Eskolan hasi, teknika ikasi eta aizkora segitu nahi duenak bere kabuz jarraitu beharra du.

Bai. Sakanako Eskola teknika ikasteko lehendabiziko pausoa da, baina hau ez da entrenatzeko tokia. Aizkolari ona izateko asko entrenatu beharra dago, norberak bere kabuz ordu asko sartu. Zaila da, egurra aurretik prestatu beharra dagoelako, mantendu, bukatzerakoan ezpalak bildu... lan asko eskatzen du.

Sakanako eskolatik aizkolari dezente atera dira.

Batzuk atera dira, bai. Egun, kuadrilla bat badago.

Zuri ez dakit, baina Juanito aitari eskola honek bizia ematen dio.

Bai. Aizkora eskola berarengatik egiten da, egia esan. Ilusio handia ematen dio gaztetxoak aizkora aritzea. Bien artean trebatzen ditugu neska-mutilak, eta Aritz Oiarbide ilobak laguntzen digu. Haren arrimuan etxeko txikienak ere bildu zaizkigu. Gustura aritzen gara. Jon semeak laguntzen zuen, baina orain Donostian egiten du lan eta ezin du.

Sakanako Aizkora Eskola ez balego, aizkora galduko litzateke Sakanan.

Tradizio handiko familia txikietan mantenduko litzateke soilik, baina jende askok ez luke sarbiderik izango. Euskal Herrian ez dago gurea bezalako eskolarik. Gipuzkoatik etorri nahi izan zuten, baina ez dago tokirik.



Lezkairu-Bargagain klub onena izan zen Nafarroako Herri Kirol Jokoen Taekwondo Txapelketan. LEZKAIRU-BARGAGAIN



Laukotea Europako Txapelketan. UTZITAKOA

Bargagain, txapeldunen kluba

TAEKWONDOA Lezkairu-Bargagain klubeko borrokalari sakandarrek primerako lana egin dute Nafarroako Kirol Jokoen, Espainiako Txapelketan, Europako Kluben Artekoan eta Unibertsitate Artekoan. Bihar Nafarroako 21 urtez azpikoan lehiatuko dira

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Bargagain Taekwondo klubaren denboraldia, beste behin, borobila ari da izaten. Hala baieztatu du Bargagain eta Lezkairu klubetako monitorea Gerardo Monterok. Jakina denez, bi klubek bat egin dute entrenatzaile bera dutelako eta federazio mailan hobeki datorkielako, eta txapelketara Lezkairu izenarekin aurkezten dira, nahiz eta gero klub bakoitzak bere entrenamendu eta ibilbidea aparte egin.

Apirilaren 12tik 14ra klubeko lau taekwondo borrokalari –Irea Etxaniz eta Zoe Lanz kadeteak, Leire Etxaniz juniorra eta Mohamed Essobai seniorra– Europako Kluben Arteko Txapelketan lehiatu ziren, Tallinen (Estonia). Olinpiar jokoen eta Munduko Txapelketen ondoren dagoen txapelketa prestigiotsuenetakoa

IREA ETA LEIRE ETXANIZ, ZOE LANZ ETA MOHAMED ESSOBAI EUROPAKOAN LEHIATU ZIREN

NAFARROAKO KIROL JOKOETAN JOKOAN ZEUDEN TALDEKAKO SEI TROFEOETATIK BOST LORTU DITUZTE

NAFARROAKO 21 URTEZ AZPIKOTIK LAUZPABOST HAUTATUKO DIRA ESPAINIAKORAKO

da hau, eta lau sakandarrek maila ona erakutsi zuten. Zoek ezin izan zuen lehen erronda gainditu, estatuko borrokalari baten kontra borrokatu eta gero. Irea Etxanizek lehen erronda gainditu zuen, eta bigarrenean txapelketa irabazi zuen borrokalari greziarraren kontra erori zen, alde gutxiatik. Europa mailan bosgarren sailkatu zen. Leire Etxanizek erraz gainditu zuen lehen erronda: lehen eraso 8 segundotan irabazi zuen, eta bigarrena 20 segundotan. Bigarren errondan arerio latza izan zuen, gerora txapeldunordea izan zena. Lehen eraso 1-0 galdu zuen, eta bigarren eraso 5-4. "Pena da domina bat lortzetik horren gertu geratzea, laugarren izan baitzen. Baina lehen uneko pena hori gaindita, lortutakoa ongi baloratu beharra dago: Europa mailan

laugarren izatea sekulakoa da" azaldu du Gerardo Monterok. Mohamed ere bigarren errondan erori zen, lehen erronda bikaina egin eta gero. "Espainiako junior mailako txapeldunaren kontra galdu zuen eta laugarren izan zen". Monterok balorazio ona egin du. "Europa mailako txapelketa batean lehen lauzpabosten artean egotea sekulakoa da, oso gazte gutxi dute maila horretan lehiatzeko aukera. Duela bospasei urte esperientzia bizitzera joaten ginen, gure maila probatzera, eta orain, aldiz, onenen artean lehiatzera goaz. Hor gaude, onenetatik puntu eskasera". Tallingoa "sekulako esperientzia" izan zen.

Europako Txapelketan egun Berriozarko Mendialdea eskolan ari den Erkuden Moreno altsasuarrek hartu zuen parte baita ere, Nafarroako selekzioarekin, 46 kg azpiko senior mailan.

Unibertsitate artekoa

Asteburuan Unibertsitate Arteko Taekwondo Txapelketa jokatu zen Madrilgo Alcalá de Henaresen. Lezkairutik bost borrokalari lehiatu ziren, tartean Irati Irigoien, sakandar bakarra. Urdiaindarrak Mondragon Unibertsitatea ordezkatu zuen. Lehen errondan erori zen, final laurdenetan, alde oso txikiagatik, arerio sendo baten kontra.

NKJetan, ikusgarri

Apirilaren hasieran Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) taekwon-

do txapelketan primeran aritu ziren Lezkairu-Bargagain taldekoak. "Txapeldun gehien atera zituen kluba izan zen gurea. 44 kategorietatik hemeretzi Nafarroako txapeldun atera genituen, gutxi gorabehera erdia, eta makina bat podium lortu genituen. Garrantzitsuena izan zen ia kategoria guztietan ordezkariak aurkeztu genituela, eta hori ez da batere erraza. Halaber, taldekako txapelketetan jokoan zeuden sei trofeoetatik bost lortu genituen. Infantilen mutilen eta nesken mailan txapeldunak izan ginen, gizonezkoen kadeteetan txapeldunak, eta emakumezkoen junior mailan txapeldunak. Emakumezkoen kadeteetan bigarrenak izan ginen, baina pisu konkretu batzuetan soilik hautagai bakarrak aurkeztu zirenez, esaterako, Irea Etxaniz, domina horiek ez ziren kontuan hartu. Nolanahi ere, oso pozik gaude" azaldu du Gerardo Monterok.

Martxoan Espainiako kadeteen eta junior mailako txapelketetan parte hartu zuten Bargagaingo zenbait taekwondo borrokalari, Nafarroako selekzioarekin. Gerardo Montero izan zen ardura-dunetako bat. Lezkairuk partaide gehien eraman zituen selekzioa, hamabi borrokalari. "Emaitzei begira, ez zen ongi joan. Zoe Martin, Leire Etxaniz eta beste final laurdenetan erori ziren, Irea Etxanizek Espainiako txapeldunaren kontra galdu zuen... baina esperientziari begira, ongi etorri zitzaigun".

Infantil mailakoek ez dute Espainiako Txapelketetan parte hartzen. "Urte bukaeran Kluben Arteko Espainiako Taekwondo Txapelketa jokatzeko da, eta talde txoren bat osatuko dugu, tartean, infantilen batzuk, bertan parte hartzeko".

21 urtez azpiko Nafarroakoa

Taekwondo egutegia ez da gelditzen. Bihar, larunbata, 21 urtez azpiko Nafarroako Txapelketa hartuko du Larrabidek, 2005. eta 2009. urteen artean jaiotako borrokalariendako. Bertatik aterako dira ekainaren bukaeran Espainiako Txapelketan parte hartuko duten lauzpabost taekwondo borrokalari. Bargagain Taekwondo eskolaren jarduna maiatzaren bukaeran despidituko da, baina nagusienek ekainaren bukaerara arte luzatuko dute denboraldia.



Asier Urbieta zuzendaria, ezkerrean, grabazioan aktoreei oharra ematen. UTZITAKOA

"Errodajea errealtatea eta fikzioa askotan nahasten ziren"

ASIER URBIETA ZINEGILEA

'Altsasu' telesaila zuzendariak 'Faisaien irla' filma aurkeztu zuen, maiatzaren 1ean, Altsasuko lortia kultur gunean

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Apirilaren 25ean mustu zuten *Faisaien irla*, Bidasoa ibaian gertatzen den emergentzia humanitarioa oinarrian jartzen duen filma. Asier Urbieta da zuzendaria eta gidoilaria, *Altsasu* telesailaren zuzendaria; maiatzaren 1ean *Faisaien irla* filmaren lortia kultur gunean emanaldian izan zen eta solasaldia eman zuen. "Jende asko gerturatu zen. Oso gustura egon nintzen". Zinemagileak maiatzaren 5ean jaso zituen ikusleen datuak, eta filma Hego

Euskal Herrian 10.000 pertsonatik gora eta Ipar Euskal Herrian 3.000tik gertu ikusi dutela esan zuen; "eta ez dira hiru aste pasa". **Zergatik Faisaien irlan eta Bidasoa ibaian gertatzen denaren inguruko film bat egin?**

"ISTORIOA OSO GORDINA DA; JOKAERA POSITIBOA ERE ERAKUTSI NAHI GENUEN"

2021ean berriak irakurtzen hasi nintzen eta Bidasoan jendea itotzen ari zela ikusi nuen. Oso bortitza iruditu zitzaidan etetik hain gertu hori gertatzea. Gero konturatu nintzen nire inguruan jendea ez zela kontziente. Nahiz eta berriak egon, ez zela enteratzen. Orduan, pika bat dokumentatzen hasi nintzen eta konturatu nintzen Bidasoako muga oso inportantea bilakatzen dela Afrikatik Europara datorren jendearendako; jende pila bat zebilela ibai

zeharkatzen Parisera edo Frantziako hiri handietara bidean. Hori kontatzen hasteko beharra sentitu nuen.

Gaia azalerazi nahi zenuen?

Irungo Harrera elkartearekin hizketan esan zidaten komunikabide pila bat joan direla, euskaldunak eta kanpokoak (BBC, Al Jazeera...). Badirudi immunitatuta gaudela hainbeste ezbeharrerekin. Orduan, interesgarria da bai Amets Arzallusek *Miñan* liburuarekin egin zuena, gero Ander Lipusek antzerkieraman duena, edo Muguruzaren dokumentalarekin egiten dena. Guk pelikularekin ikusleari istorioa beste modu batera kontatu nahi genion, modu emozionalagoan, eta ea horrela iristen ote den.

Nolakoa izan zen dokumentazio lana?

Egunkarietatik hasi nintzen, *Miñan* irakurri nuen eta gero atentzioa deitu zidan Gari Garaialde fotokazetariaren argazkiak. Oso inspiratzaileak iruditu zitzaizkidan. Zazpi urte daramatza emergentzia humanitario hau erretratatzeko, eta berarekin harremanetan jarri nintzen. Bere begiek ikusitako mila istorio kontatu zitzaizkidan. Harrera sarearekin hizketan hasi ginen ere, eta handik eta hemendik errealtate izpiak hartzen joan ginen. Gidoian horietako istorio asko daude. Ez dago errealtatean oinarrituta, baina detaile asko daude; errealtatetik hartutakoak.

Hausnartzeko film bat da.

Hori zen ideia; ikuslearengan hausnarketa bultzatzea. Istorioa oso gordina eta gogorra da, eta saiatzen gara hori jokaera positibo batekin ere erakusten eta zabaltzen. Esan nahi dut, kritikatzeko oso ongi dago eta oso beharrezkoa da, baina ere beharrezkoa da gauzak aldatzeko zerbait egitea. Gainera, dokumentazio lanean eta grabazioan Irun inguruko pila bat pertsonen laguntzen dutela ikusi dugu; laguntzen dute keinu oso txikiekin: besterik gabe norbaitengana joan eta zerbait behar duen galdetu, informazio eman, kafe bat eskaini... Laguntza txiki as-

"BAKARRIK HORTIK IBILTZEA, JENDEA IKUSTEA... NIRETZAKO ALTSASU BETI IZANGO DA TOKI BEREZI BAT"

korekin sekulako laguntza ematen dugu.

Nolakoa izan zen errodajea?

Errodajea nahiko bitxia izan zen errealtatea eta fikzioa askotan nahastu egiten zirelako. Guk kontatzen genuena gertatzen ari zen grabatzen genuenean. Poliziaren benetako kontrola kentzen zuten gure kontrola, gezurrezkoa, jartzen genuenean. Guk ikusten genuen gazte askok ez zekitelako non zeuden ere, ez zutela hizkuntza ulertzen, ez zutela zer gertatzen ari zen ulertzen; bat-batean guk pasatzen uzten genien, beraiek poliziaz jantzitako aktoreak ikusten zituzten. Anekdotak bezala, Sambou aktorea polizia frantsesak paperak eskatzeko gelditu zuten grabatzen ari ginen bitartean. Itzulera beroak, frantziar estatuan hartu eta Irunen uzten dituztela, gure begien aurrean ikusi genituen, egunero, grabatzen geunden bitartean. Horrek ekarri zuen talde artistikoaren eta teknikoaren inplikazio oso handia; ikusten ari ziren kontatzen ari ginena benetan gertatzen zela eta kontatu beharrezkoa zela.

Zure lehenengo filma da. Telesailarekin aldageta handia nabaritu duzu?

Errodajea baino post-produkzio luzeagoa izan dela. Telesailarekin alderatuta baliabide gehiago izan ditugu, denbora gehiago... Errodajea betiko lantaldea egon da, esperientzia handikoa, eta beti laguntzeko prest dagoena. Ondo inguratuta egon naiz. Egia da ez dela pelikula erraza akziodun sekuentziak daudelako, figurazio asko, erreskate bat, sekuentziak itsasontzian... Oso gustura ibili naiz. Post-produkzioan bai harritu ninduela zer mimorekin egiten den guztia. Berriena promozioarena izan da; elkarriketa asko, solasaldiak eta abar. Ez nuen hainbeste ezagutzen azkeneko fase hau.

Nola izan zen Altsasura itzultzea?

Oso berezia izan zen Altsasura berriro etortzea. Sekulako gogoa neukan; jendea eta gauzak nola aldatu ote ziren ikusi. Gustatu zitzaidan ikustea denborak gauzak aldatzen dituela, jendea bizitza normala egiten ari zela, eta nik neuk ikusi nuen nolako maitasuna diodan herriari. Bakarrik hortik ibiltze hutsa, jendea ikusi... Niretzako Altsasu beti izango da toki berezi bat.

Aixita bertso sariketaren bosgarren edizioa

Maiatzaren 17an, larunbata, jokatu da Pikuxarrek antolatutako bertso sariketa; Euskal Herri osoko sei bertsolari gaztek parte hartuko dute. Bertsolari gazteei aukerak ematea da txapelketaren helburuetako bat

IRURTZUN

Iosu Sanjurjo Altzuri, Aroa Arri-zubieta Barredo, Endika Legarra Nuin, Ane Zuazubiskar Iñarra, Aitor Server Etchechuri eta Josune Aramendi Perez bertsolariak izanen dira Aixita V. Bertso Sariketako parte hartzaileak. Euskal Herri osotik helduko dira Irurtzunera, izan ere, Pikuxarrek antolatuta txapelketaren oinarrietako bat da herrialde guztiak islatuta egotea. Aixitak ere gazteei plazak eta aukerak ematea du xede. Aixita Bertso Sariketa maiatzaren 17an, larunbata, 17:30ean, Irurtzongo kultur etxean jokatu da, sarrera libre da, eta Zigor Gartzia Arregi Zian izanen da gai jartzailea.

Aixita Bertso Sariketaren beizgarrietako bat bertsolarien jatorria da; bi nafarrek, Iosu Sanjurjo Altzuri lesakarrak eta Endika Legarra Nuin iruindarrak; arabar batek, Aroa Arri-zubieta Barredo gasteiztarrek; bizkaitar batek, Josune Aramendi Perez markina-xemeindarrak; Aitor Servier Etchechuri azkaindarrak (Lapurdi), eta Gipuzkoatik Ane Zuazubiskar Iñarra arrasatearrak parte hartuko dute.

Adina da Aixitak bereizten duen bigarren oinarrietako bat: bertsolari zaharrena 1993an jai-



2024ko Aixita Bertso Sariketa. ARTXIBOA

takoa da eta gazteena 2001. urtean; hortaz, 32 eta 24 urte bitarteko gazteek parte hartuko dute aurreko edizioan Ipe Lizarraga Pikuxarreko kideari eta Mintxo Astiz bertsolariei eta bertso sariketaren antolatzaileei egindako elkarrizketa batean Irurtzuna joaten diren bertsolariek aurreko urtekoekin hitz egiten dutela esan zuten, "eta gogotsu etortzen dira. Lehenengo urtetan sorpresa hartzen zuten sariketa formatua zela ikusten zutenean".

Oso eskertuak joan direla gaineratu zuten.

Palmaresa

Irurtzongo Aixita bertso sariketaren bosgarren edizioa izanen da aurtengoa. Eli Pagola Apezte-xeak irabazi zuen sariketaren lehenengo txapela, 2021. urtean. Bigarren txapelduna, 2022. urtean, Ane Labaka Mayoiz izan zen, eta 2023an, hirugarren edizioan, Amaia Iturriotz Etxanizek jantzi zuen txapela. Aurreko urtean, laugarren edizioan, Aitor Bizkarrak irabazi zuen.



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

'Trail running'-aren motxila

Trail running-a egun, modan dagoen kirol bat da. Naturan egiten den lasterketa gisa definitzen da; mendian, basamortuan, basoan, lautadan... egin daitekeena. Luzera desberdinetako lasterketak prestatzen dira, 42km baino gutxiagokoek Trail izena hartuz, eta 42km-tik gorako lasterketek Ultra Trail izena hartuz.

Kirol honen berezitasun fisiologikoak direla eta, nutrizioa izan daiteke lehiaketa edo espedizioan aldaketa markatu dezakeen faktore garrantzitsuenetako bat. Nutrizio praktika desegoki batek arriskuan jar ditzake ondo entrenatutako mendiko kirolariak. Garrantzitsua izango da, beraz, fisikoki ongi entrenatuta egoteaz aparte, nutrizioaren esparruari tartetxo bat eskaintzea; osasun egoera ona, kirol errendimendu hobia eta errekupeazio ona bermatzeko, eta kirolaren berezko patologia jakin batzuk izateko saihesteko.

Mendiko kirolarien nutrizio arriskuei dagokienez, gorputzeko erregeia agortzea, deshidratatzea eta hiponatremia

arriskua, urdail hesteetako arazoak, altitudearekin lotutako arazoak eta altuera txarra dira. Nutrizioa aliatu gisa, ebidentzia zientifikoan oinarritutako estrategia dietetiko eta suplementazioaren diseinu egokia, kirolariaren testuingurura egokitua, eta nutrizio entrenamendu egokia dira osasuna eta kirol errendimendua bermatzeko giltzarria. Hau guztia dela eta, estrategia nutrizionalak ongi finkatuta egon behar du.

Berez, probak 1 eta 2,5 ordu artean irauten badu, orduero 30-60g karbohidrato hartzea gomendatzen da, eta proba luzeagoa bada, orduero 90g karbohidratokoa. Proteinei dagokienez, gehienbat proba ondoren hartuko dute garrantzia, muskuluen errekupeazioan lagunduko baitute. Kirol saioaren ondoren hartzeko adibidea; jogurta, proteina hautsa, fruta eta oloarekin izan daiteke.

Amaitzeko, hidratazioa izango da ere asko zaindu beharreko aspektua. Lasterketarekin hasi aurretik, garrantzitsua izango da ongi hidratatuta egotea. Proba bitartean, orduero 0.4-0.8 l hartzea gomendatzen da, eta saioa amaitzean, oso garrantzitsua izango da proba bitartean galdutako pisua ur litroan errekupeatzea, 1.2-1.5 l/kg hain zuzen ere.

Dantzari profesionalekin dantzan

Maiatzaren 9an, ostirala, 18:00etan, Burunda frontoian, Dantzaz kopainiaren *Verdantz* dantza ikuskizunaren emanaldia izanen da. Haiekin batera Altsasuko BHIko, Jesusen Bihotzako, Andra Mari ikastolako eta Iñigo Aritz ikastolako ikasleek egindako koreografiak egingen dituzte ere. Ikasleen dantzak konpainiako dantzari profesionalen gidaritzapean asteen zehar ikasitxeetan egindako erresidentzian sortutako koreografiak izanen dira.

Nafarroako Antzoki Sareak antolatutako Oholtzara Salto programaren barruan dago ekimena, eta arte eszenikoak gazteei gerturatzea du helburu.

Altsasuko musika elektronikoko artistendako deialdia

Musika elektronikoa egiten duten "altsasuar ugari ditugu" esan du Javier Ollo Martinez Altsasuko alkateak, eta egoteaz jabetuta Altsasuko udalak herriko musika estilo hau sortzen duten artistak elkar-tu eta jaialdi bat antolatu nahi du.

Lehenengo urratsak ematen ari dira, eta horren harira maiatzaren 16an, ostirala, musikariak lehen bilera batera deitu dituzte.

Bilera honetan edo jaialdiari buruz informazio gehiago nahi duten musika elektronikoko artistek altsasu@altsasu.net eposta helbidera mezua bidali behar dute.

Emanaldi arrakastatsua

Apirilaren 26an lortia antzerki tailerrak 'Desesperanza, 21' antzezlanarekin egin zuen, lortia kultur gunean. Pisuetxe bateko atarian kokatzen da istorioa, eta bizilagunak bertan elkartzen hasi dira. Sergio Molero, Isabel Borrega, Reme Pagan, Juana Santano, Alberto Alvaro, Juli Alvaro, Bea Ganuza, Amelia Lapuente eta Jone Pelaez izan ziren antzezleak.





Lakuntzako Herri Eskolako ikasleak antzerkia entseatzten. UTZITAKOIA

Lakuntzako euskaraz

'Astue baino astopotrogoa!' herriko hizkeran egindako antzezlanaren aurkeztuko du Lakuntzako Herri Eskolako maiatzaren 16an, ostirala, kultur etxean. Lakuntzako euskara ezagutarazteko eta sustatzeko egiten duten hirugarren ikuskizuna da

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA Lakuntzako hizkera "eskolara ekartzea" helburuarekin antzezlana bat prestatzen hasi ziren duela hiru urte. Aurtengoa *Astoa baño astopotrogoa!* deitzen da, eta maiatzaren 16an, ostirala, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean aurkeztuko dute. Goizean eskolako ikaskideendako emanaldia egingen dute ere. Esketx txikiez osatutako pieza bat da, Ane Miren Iruretagoienaren eskolako irakasleak azaldu duen bezala, "bakoitzak hiru edo lau esaldi esan behar ditu. Kontua da denek ikastea bakoitzak esaten duena, baita besteena ere". Horrela entzutearekin batera herri hizkera "ezaguna" egiten zaie. "Batzuk etxetik dakarte, baina beste askok eskolan ikasten dute euskara, eta batua da. Badirudi ere euskara bakarrik eskolako zerbait dela, eta esko-

latik kanpo ere sustatu nahi dugu". Hori da herri eskolako egiten duen antzezlanean helburu nagusia.

Antzezlanaren osatzeko "oso lakuntzarrak" diren ekimenak hartzen dituzte. Aurten, esaterako, Lakuntzako Pertza udan ospatzen duten Aralarko San Migelera erromeria aukeratu dute, eta aurreko urtean Lagun Artea futbol taldeko partida bat izan zen. "Batzuk ez dira erromeriara ere joaten. Ekimena bera ere arrotza egiten zaie; agian nagusiagoak direnean lagunekin joaten dira, baina etxekoek ez dute ezagutzen eta ez dira joaten". Horregatik ere, euskara azaleratu ez ezik, herriko ohiturak ere erakusten dituzte antzerkiaren bidez.

Testua Iruretagoienak berak sortu du. "Egin zitekeen ikasleekin, hartu egoera bat eta txisteak

egin. Baina lana aurreatzeagatik nik egin dut". Egoera "erdi komikoei" osatzen dute lana, "ez dira kalitate handiko testuak. Bi eta lau pertsonaia daude eszenatokian eta beraien artean hitz egiten dute; besteak beste, astoa, astoaren nagusia, tripotak prestatzen dituenak, familiak, lagun kuadrillak, txistulariak, abesbatza...". Ikasle bakoitzak hiru esaldi inguru esan behar ditu, eta horiek esanda eszenatik ateratzen dira; "normalean ez dira gehiago ateratzen".

Hirugarren mailatik seigarren mailarako ikasleek parte hartzen

LAKUNTZAKO PERTZA EGUNEAN OINARRITZEN DA, ETA HERRITAR EZAGUNAK AIPATUKO DIRA

dute, nahasita, Lakuntzako Herri Eskolako antzezlanean; 40 ikasle inguru. "Txikiak esaldi bat dute eta handiek gehiago dituzte".

Antzezlanaren sortzen

Urtarrileko San Saastin festak pasata hasten dira antzezlanaren prestatzen. "Herriko zerbaitetan oinarrituta egoera bat sortzen dut. Ikasleei herriko hizkeran ematen diet, laguntza izaten dut, eta aurkezpen bat egiten diegu azaltzeko lana zeri buruzkoa izango den eta nola egingo dugun". Normalean ikasle bakoitzari zein pertsonaia egokitzen zaion hobekien esaten diete, "baina beraiek ez badute ikusten, haien artean alda dezakete. Askok ez dute aldatzen, baina aukera dute". Hurrengo urratsa testuak ahoz ikastea da. "Oso garrantzitsua da. Grabazioa ematen zaie, gaur egun WhatsApparekin eta horrelakoekin oso erraza da. Ahoz egiten dugu doinua behin gaizki ikasita ez dagoelako modurik ongi egiteko". Ahoz ikasi ondoren, nahi badute, idatzian ematen zaie ere.

Behin testuak ikasten dituztenean esketxaren entsegu txikiak egiten dituzte. "Ikasle bakoitza klase batekoa da, eta tarteka ateratzen ditugu. Hasieran talde txikietan banatzen ditugu". Gero hiru edo lau esketx batera entseatzeko hasten dira, "atzetik eta ondoren datozen ikas ditzen. Oso garrantzitsua da besteena ere entzutea, ez hain-

beste jakiteko zer doan, baizik eta zer esaten duten ikasleek". Esamoldeak ikastea da inportanteena. "Azkenean esaera horiek esaten bukatzen dute. Agian esaera osoa ez, baina gauza txikitxoak sartzen dituzte haien egunerokotasunean. Hori da politena. 'Ze habil mutikue!' eta horrelakoak esaten dituzte". Errepikatzearen bitartez urte bakoitzean "hiru edo lau gauza txiki" geratzen direla esan du irakasleak. "Merezi du; lan asko da, baina helburua betetzen da". Egun hauetan azken entseguak egiten ari dira, egunero. Jantziez gurasoak arduratzen dira, eta haien inplikazioa eskertu du Iruretagoienak.

Istorioa

Pertsonaien artean aurten animaliek hitz egingen dute. Esaterako, asto bat da protagonista, baina ez da animalia bakarria izango *Astue baño astopotrogoa!* antzezlanean. Lakuntzako Pertza ospakizunean oinarritzen denez, egun hartako pertsonaia ere agertuko direla azaldu du Iruretagoienak: "Guaixekoak ere agertzen zarete! Argazki bat egiten Guaixerako. Juanjoren tripotak ere aipatzen dira, hemengo harakina, eta Juan Ramonen kamioia ere, Transportes Arregikoa, gauzak igotzen dizkizula nahi izanez gero". Pertsonaia horiek ez dira aterako, baina bai aipatuko dituzte: "Izan ere, horiek gabe egun berezi hori ez zen berdina izango".



Jose Antonio Angulo Bachiller, aldamenen Satrustegiko argazkia duela. UTZITAKOA

"Hemen alternatiba dago: autobusak gelditzea"

Satrustegin 'herri isolatua, herri hustua' protesta martxa egingen da igandean, 13:30ean. Satrustegiko Kontzejuko presidente Jose Antonio Angulo Bachillerrek esan duenez, garraio publikoa erabiltzeko dituzten zailtasunak agerian utzi nahi dituzte

A.A.I. SATRUSTEGI

1 Noiztik ez da autobusik gelditzen markesina parean?

2023ko maiatzaren 4tik, osteguna. Nafarroako Gobernuak NBus kontzesioa eman eta martxan jarri zenetik. Ordura arte autobusa beti gelditzen zen.

2 Zergatik ez da gelditzen?

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusitik esan dutenez, geltokiak ez du araudia betetzen, eta arriskutsua da. Ez dagoela espaloirik, autobusak ezin duela bertan bueltarik eman. Arakilgo Udaren eskaerei ere ez diete kasurik egin.

3 Nolakoa beharko luke espazioak autobusak gelditzeko?

Ez digute esaten zer den beharrezkoa. Garraiokoek hasieran esan zidaten geltokia konpontzearen eskumena Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiarena zela. Han esan zidaten eskumena garraiokoena

zela. Baina ez batean ez bestean ez didate esan zer den beharrezkoa geltokiak araudia bete eta autobusak bertan gelditu ahal izateko.

4 Beste aterean batean jo duzue?

Garraiokoek erantzuten ez zutenez, Arartekoarengana jo genuen. Gainontzeko herritarren eskubide bera gurela uste zuen, eta kontzejuaren eta garraiokoaren arteko bitartekaritza lana egin zuen. Nik bitartekariarekin hitz egiten nuen eta hark zuzendaritzakoekin. Garraiokoek esaten zidaten gauza bera errepikatu zuen teknikari bat bidali zuten. Itxura egiteko bidali zuten. Azkenean, gobernuak erabaki zuen bitartekaritza prozesua bukatu zela. Ez zen inolako akordioarik lortu. 2024a horrela pasa zen.

5 Ondokoetan zergatik gelditzen da?

Lan txiki batzuk egin zituzten garraiokoek. Diru pixka bat zuten eta horretan gastatu zuten. Pentsatzen dut araudia betetzeko izan zela. Baina ez Satrustegin ez

beste herriren batean ez dute ezer egin. Satrustegirako sarrera daudden artean handienetako bat da, arrasto batzuk beste modu batera margotuta, nik uste dut aukera badagoela. Gobernutik eskaera bidezko garraioa aipatzen dute. Astelehen, asteazken eta larunbatetan bidaia bat da. Irurtzunera eramaten zaitu Iruñerako autobusa hartzeko. Bezperatik deitu behar duzu. Duen ordutegiagatik ez du inork erabiltzen. Eta aitzakia hori jartzen dute. Egunero eta ordutegi guztietan balego zerbitzu hori beste kontu bat litzateke.

6 Autobusik gabe, zein da alternatiba?

Autobusak Zuhatzun eta Hiriberrri Arakilen gelditzen dira. Bietako batera joan behar duzu oinez. Euri egun batean joan oinez bide bazterrik eta argirik ez duen errepide batetik. Ez dago inolako segurtasunik. Bestela, norbaitek autoz eraman behar zaitu. Esaterako, emakumezko bat zaintzen duen zaintzailearekin hala dabil andrearen semea, zaintzailea ekartzen eta erama-

ten. Antzeko nabil alabarekin. Beste toki batzuetan taxiek autobuseraino eramaten dute jendea, eta erakundeek ordaintzen dute. Alternatibak badaude. Baina hemen autobusa gelditzearekin nahikoa litzateke.

7 Autobusa hartzen duzue?

Ez da inor animatzen.

8 Zenbatetan pasatzen da autobusa?

Astegunetan Iruñerako noranzkoan sei autobus eta Gasteizera-koan bost pasatzen dira. Bertatik pasatzen denez, Burundesarendako Satrustegin autobusak gelditzea ez da kostua.

9 Satrustegiarren artean zer sentipen dago?

Egoera honek ez duela inolako zentzurik. Garraio jasangarriaz hitz egiten da, baina, azkenean, dena traba da. Herriak bizirik nahi badituzu, zerbitzuak eskaini behar dizkiezu. Horregatik aukeratu dugu lelo hori.

10 Bakarrik egonen zarete igandeko martxan?

Arakilgo herri guztiak gonbidatu ditugu.

11 Bitartean, beste erabilerarik eman diozue herriko markesinari?

Ez, hor dago. Gobernuak eraiki zuen Sakanako Autobia (A-10) egin zuenean. Zerbaiteko erai-ki zuten, haiek bere funtzioa bueltatu beharko diote.



Eraldatu zure irudia

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altasu
info@gikomunikazioa.eus | www.gikomunikazioa.eus

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe